

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko urriaren 26a • II. urtea • 39. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Irune Ibarrenen
grafologia ikastaroa
Antzuolan

KIROLA

Gipuzkoako Gimnasia
Erritmikoko Txapelketa
zapatuan Bergaran /10

LEIRE EREÑO

*“Ahalik eta hondakin
gutxien sortu eta
produzitzea da onena” /9*

BULARREKO MINBIZIA

Itxaropenerako gero eta arrazoi gehiago

Debagoianean hamar emakumetik bik edo hiruk bularreko minbizia izango dute euren bizitzan. Hala ere, medikuntzak izugarriko aurrerapenak egin ditu azken urteotan. Bularreko minbizia eta heriotza ez dira, ezta gutxiago ere, sinonimoak. Sen-

datze tasak ere geroago eta altuagoak dira. Itxaropenaren bidea geroago eta zabalagoa da. Eta hori, Bularreko Minbiziaren eta Minbizi Ginekologikoen Nazioarteko Eguna pasatu berri dugunean —urriaren 19an izan zen, joan den egubakoitzean—. Hor-

taz, gogoratu beharreko kontua da bularreko minbizia senda daitekeela eta gaixotasuna garaiz antzemanaz gero, kasu askotan sendatu egiten dela. Bularreko minbiziari buruz erreportajea landu dugu, luze eta zabal, oraingo asteko GOIENKARIAN. /2-3

OÑATI

Lapurretan egin dute Lizarralde Kirolak dendan

Ziklista izandako Mikel Lizarraldek Oñatin duen denda lapurrak sartu ziren domekan gaueko 00:00ak inguruan. Albo-ko lorategitik harri handi bat hartu eta erakusleihoko kristala hautsi ondoren sartu ziren dendara. Bizilagunak segituan ohar-tu ziren, ordea, eta Ertzaintzari deitu zioten. Ertzainek goizaldeko 00:30 pasatxo zirela harri-patu zuten lapurra. /3

DEBAGOIENA

Arizmendi Ikastola kooperatiba bakar bihurtu da


Arizmendi Ikastola bateratze prozesuaren berri ematen dabil egunotan. Ikastolako umeen gurasoei zuzendutako ekimena da. /5

Hurrengo astean, GOIENKARIarik ez

Datorren astean, zubia dela eta, ez duzue GOIENKARIarik jasoko, ezta herrietako ediziorik ere: Arrasate Press, Berrigara, Aretxagazeta...

Zapatuan ordua atzeratu behar da

Neguko ordutegia estreinatuko dugu zapatuan. Erlojua ordubete atzeratu behar du: goizaldeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu gero!



Biztanleen errolda berrituko dute

Oraingo astean hasi dira ibarreko herri guztietan biztanleriaren errolda berritzeko datuak jasotzen. Horretarako, zentsu-agenteeek dihardute etxez etxe. Abenduaren 28ra arte ibiliko dira. Hamar urtetik behin berritzen da biztanleriaren errolda. Errolda-informazioari esker jakin ahal izango dugu: zenbat garen adin, jaioleku, bizileku edo egoera zibil jakin batekoak; zenbat ikasle dauden, lantokira edo ikastetxera joateko erabiltzen den garraibidea eta denbora... /3

Baliozkoa azaroaren 1etik 30era

BALIO-TXARTELA
500
€ 3,00

Hipermerkatuan 10.000 pezetatik gorako erosketetan erosketa txartela eta txartel hau aurkeztuta.



Erregaia ordaintzeko SABEKOko gasolindegian (Durango).

SABECO
Hipermerkatuak

ZUGAN PENTSATZEN DUGU

HAIN HAINBESTE HURBIL

Bularreko minbizia

Itxaropenerako geroago eta arrazoi gehiago

LEIRE KORTABARRIA

Berri txarrak: Debagoie-
nean hamar emakume-
tik bik edo hiruk bula-
rreko minbizia izango
dute euren bizitzan zehar.

Berri onak: medikuntzak izu-
garrizko aurrerapenak izan ditu.
Bularreko minbizia eta heriotza
ez dira, ezta gutxiago ere, sino-
nimoak. Sendatze tasak ere gero-
ago eta altuagoak dira. Itxarope-
naren bidea geroago eta zabala-
goa da. Eta hori, Bularreko
Minbiziaren eta Minbizi Gine-
kologikoen Nazioarteko Eguna
pasa berri dugunean —urriaren
19an izan zen, joan den eguba-
koitzean—. Hortaz, gogoratu
beharreko kontua da.

DIAGNOSI GOIZTIARRA

Urte batzuetatik hona —hamar-
kada bat, gutxi gorabehera—,
medikuntzak geroago eta soluzio
azkarragoak eta hobekak eskain-
tzen ditu. Horrela dio Jose Ramon

Serrano ginekologoak: “Minbi-
zia hasieran harrapatuz gero,
emakume gehienak sendatu egi-
ten dira. Aste baten buruan has-
ten da tratamendua”. Lehen,
gehienetan, emakumeek eurek
sumatzen zuten zer edo zer gaiz-
ki zebilela, bultoa igartzen zute-
lako bularrean. Medikuaengana
joan orduko, gaitza aurreratu
samarra egoten zen. Hori zeharo
aldatu da, Serranok dioskun
moduan: “Geroago eta diagnosi
goiztiar gehiago dago. Mamogra-
fia prebentibo gehiago egiten
dira. Hori dela eta, gehienetan
minbizia antzeman egiten da bul-
torik oraindik agertu ez dene-
an”. Edozelan ere, aditu guztiek
gauza bera aholkatzen dute: em-
kume guztiek bularrak miazteko
ohitura hartu behar dute.


GIZARTEAREN JARRERA

Gizarteak ere jarrera aldaketa
izan du bularreko minbiziari
dagokionez. Lehen, minbizia aipa-
tzea tabu antzekoa zen, akaso eza-

gutza faltagatik; orain, aldiz,
dibulgazioa hutsune hori betetzen
ari da. Ez hori bakarrik: jendea
sentsibilizatuagoa dago, eta em-
kume elkarteak ere lanean dabil-
tza jarrera hori areagotzeko.

Jarrera horretan zerikusia
izan lezakete minbiziaren trata-
mendu ez hain drastikoez. Kimio-
terapia, erradioterapia eta pilu-
la bereziak dira maizen ematen
diren tratamenduak; batzuetan,
banaka hartu beharko dira; bes-
tetan, bateratuta, kasuaren ara-
bera; izan ere, bularreko minbi-
ziaren barruan, ehunka mota des-
berdin dago eta bakoitzak bere
tratamendua du. Baina, orain
urte batzuk, sendatzeko modu
bakarra bularra kentzea zen—hau
da, mastektomia egitea—, horren
ondorio fisiko eta psikologikoe-
kin.

Gaur, mastektomia salbues-
pena da, eta, tratamenduaren
ondoren, osasun ohar batzuk kon-
tuan hartuta, emakumeak bizi-
modu normala egin dezake.



Goian, tumorea duen bularra. Behean, emakume bat bere gorputza esploratzen.

JOSE RAMON SERRANO / GINEKOLOGOA

“Aurrerapen asko egin dira minbiziaren tratamenduan: diagnosi goiztiarra eginda, %95 osatu egiten dira”

Jose Ramon Serrano gine-
kologoa Eskualdeko Ospi-
taleko Ginekologia eta
Obstetrizia Zerbitzuko ardu-
radun nagusia da. Bularreko
minbiziaren gaineko aurrera-
penen inguruan berba egin du
harekin GOIENKARIAK.

**Bularreko minbiziaren zenbat kasu gertatzen dira Debagoie-
nean?**

Euskal Autonomia Erkidego-
an beste, eta, era berean, mende-
baleko herrialdeetan beste: hamar
emakumetik bik edo hiruk bula-

rreko minbizia izango dute bizi-
tzan zehar. Minbizi ginekologi-
koen artean —obarioetakoa, cer-
vixekoa, eta abar— gorantz doan
bakarra da.

**Zergatik sortzen da bula-
rreko minbizia?**

Zergatiak ez daude argi; dau-
kagun guztia hipotesiak dira. Joe-
ra bat markatzen duten bi faktore
mota daude: alde batetik, familia
aurrekariak; bestetik, haurdun
egon izana edo ez. Haurdun egon
ez den emakumeak bularreko min-
bizia izateko probabilitate han-
diagoa du. Adinari dagokionez,



bestalde, 50 eta 65 urte bitartean iza-
ten da minbizi mota horren %65.

**Zein aurrerapen mota egin
dira?**

Diagnosia, adibidez, oso goiz-
tiarra izaten da, mamografia pre-
bentiboak egiten direlako. Lehen,
bultoa sortuta zegoenean antze-
maten zen gaitza; orain, bultoa sor-
tu aurretik. Hortaz, osaketa tasak
ere asko igo dira: hasiera-hasie-
ran antzemanen gero, ehun kasu-
tik laurogeita hamabost osatu egi-
ten dira. Bigarren fasean baldin
badago, hau da, pixka bat gara-
tuagoa, ehunetik 55 osatzen dira.

**Eta ebakuntzari dagokio-
nez?**

Hor ere jarrera aldatu egin da
azken hamarkadan: lehen, bula-
rra oso-osorik kentzen zen (hau
da, mastektomia); orain, hamar
kasutik seitan, tumorea bakarrik
kentzen da, eta ez bularra. Bes-
talde, Euskal Autonomia Erkide-
goan bularreko minbiziaren tra-
tamenduak Europatik emandako
irizpideak bete behar ditu; adibi-
dez, bularra kendu behar denean,
hori justifikatu egin behar da.

**Beste uste edo jarrera
batzuk gezurtatu dira?**

MERTXE / KALTETUA

“Desdramatizatu egin behar da minbizia”

Debagoiendar honek orain 20 urte izan zuen bularreko minbizia. Orain, osatuta dago eta bizi-modu normala egiten du, baina gogoan du orduko esperimentzia. Gipuzkoako bularreko minbizia edo minbizi ginekologikoa duten emakumeen elkarteko kide da, **Katxalin** elkartekoa, hain justu.

Zein lan egiten duzu, elkarteko kide zaren aldetik?

Bularreko minbizia duten edo ebakuntza izan berri duten emakumei bisitak egiten dizkiet ospitalean, modu boluntarioan, betiere eurek gura badute, jakina. Nire eginkizuna da bakarrrik ez daudela jakinarazi eta sentiaraztea, eta euren bizipenak, kezak eta zalantzak entzutea.

Gaixotasuna tratatzeko moduan aldaketarik sumatu duzu?

Bai; oso aldaketa handia izan da nik gaitza izan nuenetik gaur egunera. Lehen, emakume bakoitza konturatzen zen minbizia izan zezakeela bularrean bultoa sumatzen zuenean. Aurrerapen handiak egin dira, eta orain, mamogra-

grafia prebentiboei esker, hasiera-hasieran dagoenean antzematen da. Minbiziak duen txarrena da oso gaitz isila dela, hasieran ez duelako minik ematen.

Eta gizarteak gaitz hori ikusteko modua aldatu egin da?

Baita ere. Nik minbizia izan nuenean, gai tabua zen; eta, jakina, ez zegoen elkarterik. Medikuarengana joan nintzen baten jakin nuen Katxalin elkartearen berri, eta kide egitea erabaki nuen. Orain, gizarteak beste modu batera ikusten du. Edozelan ere, elkarteak berbaldi informatiboak antolatzen ditu, baina oso jende gutxi etortzen da; bati gertatzen zaion arte, ez da informazio bila joaten.

Zer esango zenioke orain minbizia duen emakume bati?

Aurrera egiteko; une latzak direla, bai, eta tratamendua oso gogorra dela, baina gaindi daitekeela, eta, muga txiki batzuk salbu, bizi-modu normal-normala egin. Nire iritziz, minbizia desdramatizatu egin behar dugu guztion artean. Minbizia, lehen, heriotzaren sinonimotzat hartzen zen; baina orain, ez da horrela.

TXARO BEOBIDE / KATXALIN-EKO PRESIDENTEA

“Emakumeek elkarri lagundu behar diote”

Gipuzkoako Bularreko Minbiziak eta Minbizi Ginekologikoak Afektatutako Emakumeen Elkar-**tea da Katxalin. 1987an sortu zen. Gaur egun, 400 kide inguru ditu.**

Zeintzuk dira elkartearen helburu nagusiak?

Batik bat, tumoreen prebentzio eta antzematearen inguruko informazio iturri izan gura dugu; gainera, Gipuzkoan lor daitezkeen tratamendu, hezkuntza, laguntza... baliabideen informazioa ere zabaltzen dugu. Horrekin batera, minbizi ginekologikoek afektatutako emakumei lagundu egin gura diegu, euren osasuna zelain zaindu ikas dezaten. Horrez gain, laguntza psikologikoa ere bideratzen dugu. Beste eginbehar garrantzitsu bat sentibilizazioa da: mamografiak egiten diren herri guztietan ibiltzen gara, eta emakumei osasun aholkuak ematen dizkiegu. Donostian daukagu egoitza, eta 943 48 26 04 da gure telefona.

Zein inpaktu psikologiko du bularreko minbiziak?

Norberaren arabera da. Gaur egun, beste modu batera

ikusten da gaixotasun hori, gizarteak informazio gehiago duelako; ikuspegia baikorra da, eta horrek lagundu egiten du. Elkarteak baliabideak ematen dizkie, baina emakume bakoitzak onartu egin behar du egoera berria.

Zeintzuk dira baliabide horiek?

Esperientzia beretik pasatu diren pertsona taldea osatzen dugu, eta emakumea ez da bakarrik sentitzen; hori oso garrantzitsua da. Gure helburua da emakumeek bata besteari laguntzea.

Familiak ezin dezake euskarriaren rola bete?

Zalantzarik ez dago familieren laguntza ezinbestekoa dela. Baina, sarritan, minbizia duen emakumeak, familia ez kezkatzearen, bizipenak isilpean gordetzen ditu, eta hori kaltegarria izaten da. Berdin gertatzen da bikotekidearekin: bikotea egoera eskasean bazegoen, banaketa hasiera izan daiteke. Elkarteak, aldiz, afektatuak bere ispilu diren beste emakume batzuk ezagutzen ditu, eta haiekin berba egin, esperientzien berri elkarri eman... Horrek mesede handia egiten dio.

Bailaran, labur

ERREPIDEAK

Bergara eta Arrasate arteko autobide zatia egiteko lanak adjudikatu dituzte

Bergarako hegoaldea eta Arrasateko iparraldea lotzeko autobide zatiko lanak esleitu ditu oraingo astean Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain justu, Ipiñarriko zubi-bidearen hasieratik Elorregi inguruan Oñati erreka zeharkatuko duen zatira arteko (1.220 metro) lanak esleitu dira. Lanak 4.899 milioi pezetan adjudikatu dituzte eta 26 hilabete izango dituzte lanok egiteko. Moyua, Murias, Galdiano eta Altuna y Uria enpresek osatutako aldi baterako enpresa batasunak egingo ditu lanok. /ENEKO AZKARATE

ERROLDA

Biztanleriaren errolda berritzeko datuak jasotzen dabilta etxetz etxe

Oraingo astean hasi dira ibarreko herri guztietan biztanleriaren errolda berritzeko datuak batzen. Horretarako, zentsu-agentek etxetz etxe dihardute datuok jasotzen. Abenduaren 28ra arte ibiliko dira datuak jasotzen. Hamar urtean behin berritzen da biztanleriaren errolda. Errolda-informazioari esker, zera jakin ahal izango dugu: zenbat garen adin, jaioleku, bizileku, egoera zibil... jakin batekoak; zenbat pertsona dagoen egoera bakoitzean (langabeak, erretiratuak, lanean dabilzanak), okupazioaren eta jardueraren ekonomikoaren arabera sailkatuta; zenbat ikasle dauden, ikasle motaren arabera; lantokira edo ikastetxera joateko erabiltzen den garraio-bidea eta denbora... /E.A.

ALZHEIMERRA

Gipuzkoako Alzheimer Elkarteak egoitza berria ireki du Arrasaten

AFAGIk, Gipuzkoako Alzheimer Elkarteak, egoitza ireki du oraingo astean Mondragoen. Arrasate pasealekuko bulegotik Debagoieneko herritarrei emango die zerbitzua aurrerantzean AFAGIk. Edurne Etxabe arrasatearrak eskainiko die zerbitzua alzheimer gaixoei eta haien senideei. Bulegoak ez du ordutegi zehatzik izango, eta telefonoz deitu beharko da egoitzara joan aurretik. 655 71 18 37 telefonora deitu beharko dute zerbitzua jaso gura dutenek. Gaur egun, Gipuzkoan sei mila bat lagun daude alzheimer gaixotasunak jota. Debagoienean ere dezentente daude, baina AFAGIk ez du ibarreko datu zehatzik. /GORKA ETXABE

LAPURRETA

Oñatiko Lizarralde Kirolak dendan lapurretan egin zuten domeka gauean

Mikel Lizarralde txirrindulari izandakoak Oñatin duen dendan lapurrak sartu ziren domekan gaueko 12:00ak inguruan. Lapurrak atetik sartzen ahalegindu ziren, baina ez zela zabaltzen ikusita, alboko lorategitik harri handi bat hartu eta erakusleihoko kristala hautsi zuten. Bizilagunak segituan ohartu ziren, ordea, eta Ertzaintzari deitu zioten. Ertzainek goizaldeko 00:30 pasatxo zirela harrapatu zuten lapurra, Oñatitik Arrasatera bitarteko errepidean. Ostutako bizikletaren gainean zihoan, eta Lizarralde Kirolak dendatik hartutako kaskoa eta zapatilak jantzita zeramatzen. Lapurrak hartutako bizikletak 800.000 pezeta inguru balio du, dendako garestiena da. /MAIDER OSA

SARIA

12 milioi irabazi dituzte kinielan Oñatin

Hamabi milioi berrehun eta laurogeita hamasei pezeta irabazi zituzten joan den domekan Oñatiko Olakua Peñakoek. Domekako kinielan 17.496 apustu egin zituzten. Horretarako, guztien artean ia 900.000 pezeta jarri zituzten jokoan. Olakua Peñakoek 15eko plenoa bete-betean asmatu zuten. Horrez gain, 14ko bat eta maila txikiko beste 700 sari ere jasoko dituzte. /AMAGOIA LASAGABASTER

Bai. Adibidez, lehen uste zen bularreko minbizia izan duen emakume bati ez zitzaiola kome-ni haurdun geratzea. Baina gaur egun, badakigu hori ez dela horrela, eta gaixotasuna izan ondoren ama izan diren emakumeen geroago eta kasu gehiagoko dago.

Osatu den emakume batek zainketa berezirik behar du?

Ebakuntza izan duen aldeko besoa pixka bat gehiago zaindu beharko du. Horrez gain, bizi-modu normala egin ahal izango du.

BERGARA

EKIALDEKO SAIHESBIDEA

Hasi dira Zubiaurreko tunela zulatzen Ekialdeko saihesbidean

Duela hiru aste hasi ziren zulatze lanak, eta 16 metro aurreratu dituzte

MONIKA BELASTEGI

Ekialdeko saihesbideko lanak aurrera doaz. Zubiaurreko tunela ere egiten hasi dira. Tunelaren lehen fasea Gabonetarako amaituko dute.

Urriko lehenengo astean hasi ziren Zubiaurreko tunela zulatzen. Ordutik hona 16 metro aurreratu dituzte; egunean hiruzpatalu metro, Miguel Angel Muñoz obren zuzendariaren arabera aurreneko metroak motelenak izaten dira-eta. Eta adierazi du datorren astelehenetik aurrera egunean sei edo zazpi metro aurreratzen hasiko direla; horretarako, gutxienez bi leherketa egingo dituzte.

Tunela Ekialdeko saihesbidearen parte da, eta saihesbidea, Beasain-Durango korridorearen zati. Saihesbidearen enborrak 2,1 kilometro izango ditu, eta horri Oruesagasti eta Teileriakotunetako bide adarrek izango dituzten 1,2 kilometroak gehitu behar zaizkio. Bide azkarrek izan ohi duten trazatua eta ezaugarriak izango ditu, besteak beste, bi karril eta bide bazter zabalak.



MONIKA BELASTEGI

Astelehenetik aurrera, egunean sei edo zazpi metro zulatuko dituzte.

Saihesbidearen enborraren zati da Zubiaurreko tunela. 320 metro izango ditu, eta bi epetan egingo dituzte lanak: lehenengo epea Gabonetarako amaituko dute; bigarrenak beste bi edo hiru irauango du.

Bestalde, saihesbidea eraikitzeke lan guztiak 2002ko iraile-rako bukatuta egotea dago aurrez ikusita.

PINTURA ERASOA BATZOKIARI

Martitzen gau eta eguazten goizaldea bitartean, ezezagun batzuek pintura hori eta gorri zikindu zituzten Batzokiko atea eta aurre alde.

EAJko Victoriano Gallastegi alkatearen iritziz, lotsagarriak dira horrelako ekintzak, kontuan hartuta, gainera, Batzokia dagoen etxea ondare historikoa dela.

OÑATI

ZUBIKOA KIROLDEGIA

Kiroldegia handitzeko hamar proiektu aurkeztu dituzte

Horretarako sortutako batzorde berezi bat ari da aurkeztutako proiektu guztiak aztertzen

AINTZANE IRIZAR

Hamar proiektu aurkeztu dira Udalak egindako deialdira. Orain, horiek guztiak aztertu eta hilabete barru proiektua idazteko lana esleituko dute.

Uztaileko osoko bilkuran erabaki zuten kiroldegia handitzeko proiektua lehiaketara ateratzea. Irail bukaeran amaitu zen aurkezteko epea, eta hamar proiektu aurkeztu dituzte guztira. Kirol batzordeko arduradun Jose Antonio Urteaga oso pozik azaldu da, alde batetik, lehiaketara hamar proiektu aurkezteak deialdiak arrakasta izan duela erakusten duelako; eta bestetik, aurkeztu diren proiektuak kalitatezkoak direlako, itxura baten, behintzat.

Orain, horretarako espreski sortutako batzorde bereziak proiektu guztiak zehatz-mehatz aztertu beharko ditu. Hilabete barru erabakia hartuta izango dutela

espero dute. Batzorde berezi hori honakoek osatzen dute: alderdi politiko bakoitzeko ordezkari banak, bi arkitekto, idazkariak, Kirol teknikariak eta Angel Iturbe alkateak.

LANAK 2002KO IRAILEAN HASIKO DIRA

Laster esleituko dute behin betiko proiektua idazteko lana, eta zortzi bat hilabete eramango du prozesuak. Behin proiektua idatzita, datorren urteko irail inguruan lanekin hasteko moduan izatea espero du Udalak.

Udalak hainbat irizpide zehaztu zituen proiekturako. Gaur egungo instalazioak, hasiera baten, ez dira aldatuko.

Oraingoaren alloan, ambulatorio aldera, eraikin berria egitea aurrez ikusi dute. Han beste kantxa bat egingo dute. Aldagela gehiago ere egingo dituzte, gaur egungoak txiki geratu dira-eta.

Bestetik, aparkatzeko arazoa konpontzeko aparkalekua egingo dute.

Zertzelada

Oso pozik azaldu dira Udaleko Kirol batzordeko arduradunak, hamar proposamen ezberdin aurkeztu direlako, eta guztiak ere kalitatezkoak, gainera.

ELGETA

ERROLDA BERRITZEN



OXEL EROSTARBE

Hasi dira erroldako datuak jasotzen

Aste honetan hasi eta urte bukaera arte jardungo du Izaskun Larreak biztanleen eta etxebizitzaren errolda berritzen.

Izaskunen lana izango da herrian dauden 637 etxebizitza eta lokalen azalera, eraikitze data, erabilera, eta errentan hartuta edo hutsik dauden jakitea. Herrian bizi direnen errolda ere egingo du; hainbat datu eskatuko ditu Izaskunek: jaioterria, ikasketa titulua, lanbidea... Datuek izan ditzaketan akatsak zuzendu eta aldaketak egiteko, gutun bat bidaliko da etxe guztietara, eta hor zehaztuko dira Udaletxera joateko eguna eta ordua. Harrera orduak, astelehenetik barikura: 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ezin dutenek beste ordu bat hartzeko deitu behar dute. /OXEL EROSTARBE

ANTZUOLA

Eskuz binakako herri mailako txapelketan 16 bikote ari dira

AINTZANE IRIZAR

Joan den zapatuan, urriaren 20an, hasi ziren Olalde elkarteak antolatutako eskuz binakako txapelketako pilota partiduak. Bosgarren urtez jarraian antolatuta du Olalde herri mailako txapelketa hori. Aurretik ere jokatzeko zen txapelketa hori, baina ez urtero. Guztira, 16 bikotek eman dute izena aurtan. Bi kategoriatan jokatzeko da txapelketa; bikote bakoitzak erabakitzen du zein mailatan jokatu nahi duen, lehen mailan edo bigarrenean. Parte hartuko duten 16 bikoteetatik hamabik eman dute izena bigarren mailan jokatzeko, eta lau bikote bakarrik arituko dira lehen mailan.

Zapaturo jokatu dituzte partiduak, herriko frontoian. Zazpi izango dira, denera: goizez bost partidu, eta arratsalde, beste bi. Finalak, berriz, abenduaren 15ean jokatu dituzte. Egun horretan bertan banatuko dituzte sariak. Maila bakoitzeko txapelkunak eta bigarren sailkatzen direnek garaikur bana jasoko dute.

ESKORIATZA

URRIAREN 31TIK AZAROAREN 18A ARTE

Dinosauruen gaineko erakusketa ikusgai

Dinosauruek Euskal Herriarekin zerikusirik izan ote zuten aztertu eta erakusten da

MIRARI ALTUBE

Eskoriatzako Udalak dinosauruen inguruko erakusketa antolatu du kultura etxean urriaren 31etik azaroaren 18ra bitartean.

Dinosauruak zer izan ziren eta zelan bizi izan ziren jakin eta ikusteko aukera izango da datorren eguaztenetik aurrera Eskoriatzako kultura etxean. Ez bakarrik dinosauruak, animalia bitxi haiek Euskal Herriarekin zerikusirik izan ote zuten ere esango da.

ORAIN 120 MILIOI URTE

Orain dela 120 milioi urte, Euskal Herriaren zatirik handiena urpean egon zela kontatzen da erakusketa. Era berean, koral, molusku eta arrainen fosilek garai hartako klima gaur

egungoa baino epelagoa zela adierazten dute. Ingurune horretan, hain zuzen, bizi izan ziren dinosauruak Euskal Herrian.

Erakusketa Aranzadi Zientzia Elkarteak Geologia Sailak egokitu du, eta modu atseginean dinosauruak bizi izan zireneko Euskal Herriaren berri ematen du. 11 gai jorratzen ditu erakusketak, hainbat bitrintan banatuta eta argazkiz josita. Era berean, aztarna benetan interesgarriak egongo dira: hezur zatiak, hortzak eta atzaparrak. Eta 15 minutuko bideoa eskainiko diete ikusleei.

Astean ikasle taldeen bisitak hartuko dira, aurrez hitzartuak, eta asteburu eta jaiegunetan herritar guztiendako egongo da zabalik kultura etxea, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean.

Zertzelada

Aztarna benetan interesgarriak egongo dira: hezur zatiak, hortzak eta atzaparrak. Gainera, hamabost minutuko iraupena duen bideoa eskainiko diete ikusleei.

ARAMAIO

BIDAIA LITERATURAREN SARI BANAKETA

Sagitario sarien lehiaketako sariak banatuko dituzte bihar eguerdian, kultura etxean

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, Sagitario sarien laugarren aldiaren irabazleak zeintzuk diren jakinaraziko du epaimahaia. Ekitaldia eguerdiko ordu bat eta laurdenetan izango da, kultura etxean.

Hain justu, aurtentz, lau irabazle izan dira: Azkoitiko Gurutz Garmendia Osinalde; Mallorcan Jorge González de Matauco; Hernaniko Asier Blas Mendoza; eta Gasteizko Ana López de Munain. Hurrenez hurren, Ertamerikan, Kaukason eta Himalayan izandako esperientzien berri emango dute.

Sariak Inaki Nafarrate alkateak emango ditu. Epaimahaiko presidentek, berriz, Pedro Díez de Ulzurrun eta Luis Mari Igartua izan dira.

HOGETA ZAZPI LAN

Aurtentz, hogeita zazpi lan aurkeztu dituzte Sagitario sarietan, iaz baino bost gehiago, hain zuzen ere. Lan horietatik, %60 Eus-

kal Herriko idazleek aurkeztu dituzte; eta gainerakoak, %40, Espainiako Estatuko idazleek; leku askotatik, gainera, adibidez, Andaluziatik eta Extremaduratik. Bestalde, bitxikeria moduan, Holandatik ere bidali dute lan bat.

KONTAKIZUN LUZEA

Maila dezentea duen lehiaketa da hau. Izan ere, 45 orri dituzten lanak aurkeztu behar dira, eta hori ez da kontakizun laburrak idaztea bezain samurra.

Europako mendeabaitik kanpora joandako bidaietan izandako esperientzien kontakizun literarioa saritzen dute Aramaioko Sagitario sariak.

ARGAZKI RALLYA

Bestalde, gogora ezazue zapatuan argazki rallya jokatu dela Aramaion. Lehiaketa horren sariak azaroren 23an banatuko dira. Lau sari izango dira: lehenengo hiru onenak eta aramaioar onenaren saria.

Zertzelada

Aurtengo aldian aurkeztu diren lanen %60 Euskal Herriatik heldu dira. Gainerako %40 Espainiatik (Andaluzia eta Extremaduratik, adibidez) eta bat Holandatik.

ARRASATE

ARIZMENDI IKASTOLAREN BATERATZE PROZESUA

Arizmendi Ikastola kooperatiba bakar bihurtu da irailan

Lau ikastetxeek bat egin dute ikastola bakarrean. Irailan gauzatu da.

UBANE MADERA

Arizmendi Ikastola bateratze prozesuaren berri ematen ari da egunotan. Ikastolako umeen gurasoei zuzendutako ekimena da hau.

Aurtengo ikasturteak aurrera, Arizmendi Ikastolak kooperatiba izaera du; hau da, orain arte lau ikastetxe zirenak bakarra osatu eta kooperatiba moduan funtzionatzeko hasi dira: San Frantzisko Xabier, Almen, San Viator eta Umezaintza Ikastolak. Eta irailan bete da hori.

Hain justu, urrian, umeen gurasoei ari dira azaltzen bateratze prozesuaren nondik norakoak. Halaxe adierazi digu Felix Ormaetxeak, Arizmendi Ikastolako zuzendari nagusiak.

HIRU MILA UME

Ondorioz, hiru mila ikasle baino gehiago batu ditu Arizmendi Ikastolak, 280 langile eta 11 kokagune (Mondragoen, Aretxabaletan eta Eskoriatzan banatuta).

Horiek guztiak lau unitatetan daude banatuta: Haur Hezkuntza (ibar osoan), Derrigorrezko



ARIZMENDI IKASTOLA

Bateratzeak orain arte izan duen balorazioa positiboa izan dela adierazi digute.

Hezkuntza (ibar osoan), Batxilergoa (Aretxabaletan) eta Lanbide Heziketa (Arrasaten).

Unitate bakoitza autogestioan egiten da eta erabakiak hartzeko eskumena du.

HELBURUAK

Kooperatiba integrala da Arizmendi Ikastola, lan bazkideek, gurasoek eta kolaboratzaileek

osatzeko dutelako Errektore Kontseilua. Eta bi helburu nagusi ditu: ikasleak dinamismoan, autogestioan, lankidetzan eta elkartasunean hezteko, betiere, teknologia berriak kontuan hartuta.

Oro har, koherentzia da Arizmendi Ikastolako helburuetako bat. Teoriatik praktikara eramango dute koherentzia.

LEINTZ GATZAGA

Oraingo domekan zabalduko da Gatz museoa, arduradun berriarekin

MIRARI ALTUBE

Domekan, urriak 28, zabalduko da Gatz museoa neguko ordutegiarekin. Arduradun berria izango du, gainera: Aitziber Gorosabel gazte gatzagarra, hain justu. Gatzaren inguruan antolatutako museoa zabaldu zenetik, Nerea Zubiete eskoriatzarra ibili da arduradun lanetan: museoa poliki-poliki osatu, bisitariei gatzazela egiten zen erakutsi... Oraingo astean bertan, ostera, Aitziber Gorosabelek hartu du ardura hori.

Bestalde, domekan, neguko ordutegiarekin zabalduko da. Goizez, 11:30ean eta 12:30ean egingo dira arduradunak azaldutako bisitak; eta arratsaldean, 16:00etan eta 17:00etan. Eta astelehenetik eguenera bitartean, ikastetxeetako taldeek daukate bisitaldia egiteko aukera, betiere, aurretik hitzordua jarrita. Horretarako, udaletxera edo museora bertara deitu behar da, 943 714792 telefonora.

Gatzaren museoak bisitari ugari jasotzen ditu urtero-urtero.

ARETXABALETA

UDAZKEN KULTURALA

Udazken Kulturala abian da berriro ere

Kontzertuak eta hitzaldiak antolatu dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

Loramendi euskara elkarteak gertu du dagoeneko aurtengo Udazken Kulturala osatuko duen egitaraua. Berbaldiak, kontzertuak eta diapositibak emanaldiak izango dira ekintzarik aipagarrienak. Horien guztien gaineko informazioa, baina, laster

izango dute herritarrek etxean. Izan ere, Loramendik egitarau guztia dakarren diptiko bat kaleratzeko asmotan dabil.

Kontzertuak Kultur Errotaren bitartez antolatu dituzte. Eta, besteak beste, Mikel Errazkin, Beñat Achy eta Joel Merah moduko kantariak etorriko dira gurrera.



ALBERTO ELOSEGI

Txan Magoa ere izango da Loramendiren Udazken Kulturalan.

COMERCIAL BRUNET
Aprobetxatu eskaintza berezi hau!!

50 cm³
109.410 pta.

45 cm³
108.783 pta.

50 cm³
129.950 pta.

Husqvarna BOSQUE & JARDIN

Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

CORSA BERRIA SRI Zure burua auto honetan ikusi gura zenuke.

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea • 943 77 30 10
ARRASATE

Zabalik

XABIER
LETONAMaritxuren
arrakasta

Gauko festa da Maritxu Kajoi, ez dago dudarik, baina nik, nagusiki, egunez bizi izan nuen aurtengoan, eta gustora, gainera. Bazkaldu, poteua arratsaldean, afaldu eta etxera. Salbuespena izan zen, baina majo ibili nintzen, bata eta bestearekin txatxaran. Eguerdian, Maritxu Kajoi egunean, Arrasaten egon barik nengoen azken 10 urteetan, gutxienez, eta, egia esan, festa apurka egunera ere zabalketan doala ikusi dut. Eguerdian, erdigunean harrizteko moduko gazte mordoia dotore jantzita. "Tira —esan nion neure buruari—, hemen gauzak aldatzen joiezak". Bazkari eta abarrekoak, primeran. Arratsaldeko 7ak, Herriko Plaza gainezka, ume, ume-karro, gazte, guraso, neska-mutiko, erraldoi... egundoko eguraldiak lagunduta, giroa borborka plazan. Eta neure artean, "ez jak dudarik, hau goraka joiek". Primeran. Eta gogoratzen nuen, 15 urte atzera eginez, Maritxu Kajoi Komisiñoko aitzindariak nola kontatzen zizkiguten hasierako urteetako balentriak: lau katu ateratzen zirela, balkoiren batetik baldeka da ur eta guzti jaso zutela, udaltzainen galderak... Lore eskaintzaren ondoren, Arbolapetara jo genuen: "Eskapularixue, eskapularixue!", entzuten dut eta, orain 15 urte ez moduan, eskapularixuak eskuetatik kentzen dizkiete saltzaileei. 25 urte geroago, festak Arrasate irabazi duela ez da zalantzarik. Maritxu Kajoi Komisiñuan ere musu gazte asko lanean. "Beittu, transmisiñuek be funtzionetan jok", neure artean oster. Transmisioa, hori bai berba galanta; belaunaldi baten esperientzia beste batean pausaraztea. Bai, ez da txantxetako erantzukizuna zeregin preziatu hori. Afaldu ostean, programie hartu nuen —aurtengoa berezixua-iruditu zitzaidan— ea zer aukera nuen ikusteko. Ohearen aukerarik ez zen ageri, baina horixe hautatu nuen.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Gerra gelditu!

Milaka zibilen heriotza eragin duten Pentagono eta Dorreen aurkako atentatu tragikoen ondorioz bideratu den gerra dinamika gertakari hauei emaniko erantzuna baino hareago doan ekimena da, mundu osoan EEBBn hegemonia militarra, ekonomikoa eta politikoan indartzea baitu helburu nagusizat.

Atentatuaren helburua ez zen izan men-debaldeko gizartea. EEBBek euren burua gizarte horren ordezkariatzat jotzen duten arren, ez da hala, azken finean, EEBBak multinazional handien eta inoiz ezagutu den gerrarako makinaria nagusiaren ordezkariak baino ez baitira. EEBBetako Gobernuak mota guztietako gerrak bultzatu ditu (Ertamerika, Pertsiar Golkoa, Jugoslavia ohia...), nazioarteko konbenio nagusiak arbuiaitu ditu (klima, arma arinak...) eta bere interes ekonomikoak inposatu ditu (OMC, FMI, BM), milaka milioi lagunenez egoera zapuztuz. Hori da beraiek barreiatu nahi duten benetako "zibilizazioa", geurearekin zerikusirik ez duena.

Konplize bilakatu duen NBEren irizpidearen gainetik, lehendik bost kontinenteetan indarrean zeuden gerrei gehiagotu die azken hau: Balkanetakoa, Sierra Leona, Kongo, Palestina, Irak, Afganistan, Kolonia... Gerra horietan erabiltzen diren armak ez dituzte bertan egiten, Iparralde aberatsean baizik. Emakumezkoak dira, neurri handi

batean, gatazka hauetan ematen diren benetako kaltetuak (bortxaketak, errefuxiatuak, gogotatuak...). Duela hilabete gutxi, Afrikan HIESaren aurkako borroka indartzeko behar zen aurrekontua baztertu ondoren (20 milioitik gora hildako urtero), EEBBek bederatzi aldiz handiagoa den 40.000 milioi dolarreko aurrekontua onartu berri dute gerrarako. Atentatua, beraz, aitzakia ederra bilakatu dute gerrak osatzen duen negozio handia indartzeko: aurrekontu militarren indarketa, estalki nuklearra...

Gerraren diskurtso berriak mundu musulman eta arabiar osoa kriminalizatu nahi ditu. Horrek zerikusia du, lehenik eta behin, azken hamarkadetan kapitalismoak bideratu nahi izan duen bazterketa kulturalarekin eta uniformizazio politikarekin. Gutxi balitz, herri zapalduen borroka suntsitzeko ekimenarekin bat egiten du (Palestina...) diskurtsoak. Eta, azkenik, eraikitzen ari den Europa berria benetako bunker bihurtzeko defentsa egiten du, besteak beste, herri hauetatik etorritako inmigrarioari ateak itxiz. Emakume afganiarren askatasuna bost axola zaie gerrako jauntxo hauei, egoera berbera mantentzen duten Saudi Arabian edota Kuwaiten alde jokatzeko baitute.

EEBBek zein Europar Batasunak bultzaturik, gerra hau ez da militarra soilik, bere helburuen artean kokatzen baita azken urteotan ezarritako ordenaren aurka indartzen ari den disidentzia sozial guztiaren kriminalizazioa (globalizazioaren aurkako mugimendua, indioen borroka, nazio askapenerako mugimenduak...). Terrorismoaren aurka jotzeko aitzakian, neurri polizialak indartu nahi dira eta eskuraturiko eskubide demokratikoak murriztu. Horrekin batera, herrien soberaniak suntsitu nahi dira, nazioarteko instituzio politiko nagusiak (NBE), ekonomikoak (OMC-FMI-BM) eta militarrek (OTAN) erabiliz, mendekotasuna areagotzeko.

Honen guztionen aurrean, mundu mailako irtenbide bakarra orden sozialean, ekonomikoan eta politikoan benetako eraldaketa burutzea dela adierazi nahi dugu, izan ere, bakea eta segurtasuna justizia eta berdintasunean oinarrituriko zutabeetan soilik bidera baitaiteke, eta ez gerra edo gutxi batzuk munduko gehiengoaren menperatuz. Horrexegatik, gerrari EZ esaten diogu; EEBBek beren eraso berehala eten dezatela eskatzen dugu; gure lurraldetik inolako laguntzarik ez zaiela eman behar aldarrikatzen dugu (Bardeak...); pertsona guztien oina-

rrizko eskubide demokratikoak errespetatuak izan daitezkeen eskatzen dugu, bertakoena eta etorkinena, bai eta herri guztien soberania ere.

GERRAREN AURKAKO HERRI EKIMENA
Posta elektronikoz bidalia

EAJ-EA bakarrik

Milragarritako erabaki honen lehen kapitulua uztailean gertatu zen, EAJ-EAk Batasuneko zinegotziak gobernu batzordetik kanpo gelditu ginela esan zigun eta mankomunitateko karguetatik ere ordezkatuak izango ginela. Emandako arrazoiak hauek izan ziren: aurrekontuei ezetza ematea eta jaien antolaketan Udala gobernuari egin zitzaion kritika.

Egoera honen aurrean, Batasunetik bilera batera deitu genituen EAJ-EAko ordezkariak, konponbiderako proposamen bat egiteko. Gure proposamenak hiru ardatz zituen:

1. 2002ko aurrekontuak onartzeko denon arteko elkarlana adostea.
2. Gobernu batzorde eta batzorde informatiboaren arteko harremanak zehaztea.
3. Gobernu batzorde irekiekin jarraitzea, alderdi bien partaidetzarekin.

Erantzuna urriaren 16an eman digute: Gobernu batzordetik kanporatuak izan gara, mankomunitateko ordezkariak kendu digute, eta gainera gobernu batzordeak itxiak izango dira, hau da, zinegotziek ez dugu aukerarik izango bertara entzuztera joateko ere.

Zeren beldur dira horrela jokatzeko? Udala hauteskundearen emaitzetan bi taldeon arteko boto diferentzia oso txikia izan zenez, Elgeta bezalako herri batean talde guztiok parte hartu behar dugu Udalaren osaketan, inor baztertu gabe.

Zer aukera geratzen zaigu batzordeetan lanean jarraitzeko gero gure egitasmoak gobernu batzordean defendatzeko aukerarik ez badaukagu? Baserritarren batzordea gure esku bai, baina mendi nekazaritzako batzordean ordezkariarik gabe?

Hau guztia oso larria iruditzen zaigu; hala ere, gu, orain arte bezala, lanerako prest gaude, baina horretarako gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira.

BATASUNA
Elgeta

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Orain dela bizpahiru urte *Ciudadanos* aldizkariak argitaratutako artikulu batean nabarmentzea merezi duen datua irakurri zitekeen. Hain justu, Arrasatekoa

zela, Hego Euskal Herriko eta Espainiako Udalen artean, kulturara diru gehien bideratzen zuen Udaletakoa. Gero eta kultur azpiegitura hobeak ditugu eta gero eta kultura eskaintza

zabalago daukagu. Hau da, egun, gero eta diru gehiago bideratzen dute, bai erakunde publikoek zein pribatuek, asiadirako eta kulturarako. Baina, gure beharrak asetzeko adina?

Ganorazko kultura eskaintza daukagu Debagoienean?

Hobetu daitekeela, zalantzarik ez



ITXARO ARTOLA
AED elkarte
begiralea

Zer da ganorazko kultura eskaintza? Kantitate aldetik oparoa? Adierazpenetan anitza? Herrikoia? Euskarazkoa? Profesionala? Ezaugarri horiek guztiak uztartzen dituena? Ala norberaren gustuak asetzen dituena? Gainera, nago Debagoieneko herri guztien gainean iritzi orokorrik ezin dela eman, batean bertute dena bestean aje delako. Zer gehitu orduan? Edonorako balio dezakeen gogoeta subjektibo bat besterik ez.

Kultura programazioa egokia izateko nahitaezkoa deritot hainbat elementuren arteko oreka egoteari. Gehiago egon badaude, baina hiru nabarmenduko ditut: kultura agenteak, azpiegiturak eta hartzaileak. Kultura programatzen duten agenteen aldetik, Debagoienean ez gabiltza txarto, kopurutan behinik behin. Udal bakoitzak bere teknikaria dauka eta ekitaldi kulturalak antolatzen dituzten elkarteak ugari dira. Hala ere, sarriegi, kultura agenteek nork bere jarduerari erreparatzen diote bakarrik, eta gainerakoekin harreman gutxi edo puntualak izaten dituzte. Euren arteko komunikazioa areagotuz gero, programazio koordinatu eta orekatuagoa lortuko litzateke zalantza barik.

Ez da nahikoa, ordea. Kultura agenteek eskaintza programatu eta iraunkor bat garatzeko espazio egokiak behar dituzte eta eskualdeko udalerrri guztiek dituzte gabeziak maila horretan.

Eta hartzaileei buruz, zer esan diezazueket zuei? Paradoxikoki, publikoa izaten da kultura agenteentzat mamurik beldurgarriena, eta haren erantzuna, misteriorik misteriotuena. Zergatik? Oro har, eskaintzen zaiona irenstera mugatzen delako. Herritarrek programazioaren lanketan esku hartu beharko lukete, kultura agentei iritzi eta proposamenak helaraziz, gutxienez. Horrez gain, publikoak uste baino erantzukizun handiagoa dauka kulturaren sustapenean, sortzaile berriak plazaratzeko orduan, kasu.

Noiz demontre ulertuko dugu Benito, Soroiz eta Mahomaz aparte, badaudela merezi duten beste kulturagile batzuk ere? Esanak esan, ez dakit Debagoieneko eskaintza ganorazkoa ote den, baina hobetu daitekeela, zalantzarik ez.

“Noiz ulertuko dugu Benito, Soroiz eta Mahomaz aparte, badaudela beste kulturagile batzuk ere?”

Argi dago gehiago egin litekeela



JON GARAI
Arrasateko Udaleko
kultura teknikaria

Gure ibarrean ganorazko kultura eskaintza daukagun galdetzen du GOIENKARIAK, baina galdera horri buelta ematea bururatu zait, hau da, nahiko erabiltzaile edo ikus-entzule badago Debagoieneko kultura eskaintza asetzeko?

Bat-bateko buelta horrekin ez nuke gura adierazi “jendea ez doalako” eskaini behar ez denik. Bai, ordea, “ez dago ezer” samur esaten dutenei begiak irekiarazi. Izan ere, Debagoieneko herriotako kultura ekintzetan parte hartu, ikusi edo entzuteko aukera ugaria dugu.

Begiratu, bestela, GOIENKARIAn edo herri aldizkarietan hitzorduen berri ematen duten orriak: hitzaldiak, ikastaroak, ikuskizunak, erakusketak, zenbat elkarte, gaztegun, zentro, jai, hainbat tabernatako eskaintza... Kontua, beraz, ez da kultura eskaintzarik ez dagoela, adi egon eta aukeratzen jakitea baino.

Hala ere, nahikoa ote da? Nork jartzen dio neurria nahikotasunari? Dudarik ez dago gehiago egin litekeela. Eskaintzeak ohiturak sortzen ditu, gainera. Horretarako, baina, azpiegiturak beharrezkoak dira, espazioak, aretoak, zinema,... eta azpiegitura horiek bizirik irauteko publikoetan inbertitzeko gaitasuna izatea.

Gaitasuna alderdi askotatik begiratuta: ekonomikoa, eskaintzaren oreka bilatzea, ikusleak biltzeko ahalmena, eta abar.

Eta publikoetan inbertitzea diot, zeren eta bestela etxean eskura ditugun bitarteko guztiek (telebista, bideoa, DVD, internet...), publikoa edo ikusleak irentsiko dituzte-eta.

Edozein modutan ere, Debagoieneko publiko ezberdina aintzat hartuko duen eta askotariko ikusle horiei begirako kultura eskaintza sumatzen dut faltan.

Edo, agian, erreferenteen gabezia daukagu, Jam aretoak musikaren eremuan errekonozimendua lortu duen moduan edo Oñati herri turistiko bilakatu den moduan, kultura eskaintzaren ikuspegi zabaletik ere erreferenteak beharko genituzke, film berrienak ikusteko Gasteizera joan beharrik ez izateko, adibidez.

“Erreferenteak behar ditugu, film berrienak ikusteko Gasteizera joan beharrik ez izateko”

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAI

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Saltokiek urtean lau jai egunetan zabaltzeari zer irizten diozu?

Gora eta Behera

REALA ETA GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIA




Bi gauza nabarmenduko nituzke onerako, biek ere zerikusirik ez izan arren bata bestearekin. Batetik, Reala, azkenean, lehen garaipena lortu zuelako joan zen zapatuan. Ea gorantz egiten duen. Bestetik, Aretxabaletan joan zen domekan izan zen V. Gastronomía eta Folklore jaia. Errioxako, Extremadurako, Galiziako eta Gaztela-Leongo etxeetako ordezkariak izan ziren bertan.

AFGANISTANEN AURKAKO GERRA



Izua sorrarazi zigun Dorre Bikien aurkako erasoak, baina hura txarto bazegoen, Estatu Batuek Afganistanen egiten ari direna ez da hobe. Gainera, bonbak jaurti bai, baina noren aurka?, zibilen aurka?



MARTIN GARAI
Aretxabaletako
udaltzain burua

Koplak

Euroa

Urte zaharra badihoa ta urte berriari hator, pezeta ere badihoa ta euroa, berriz, badator.

Buruhausteak sortuko ditu gainera berehalaxe, asko daukana salbatuko da pezetakin bezalaxe.

Txanpon berrira moldatzeko epe laburra daukagu, orain txatarra deitzen zaiona txatar bihurtuko zaigu.

Asko daukanak gehiago nahi du ta asko ezin iritsi, lehen milionario batzuk baziran hemendik aurrera gutxi.

Asma ezinda baldin bazabitz batzuk dabilzan bezala, bota billete handia eta bueltak eman ditzatela.

Aldaketa honek zer gorabehera ote dituen biharko, kinielan bat asma ezean pobre jarraitu beharko.

JOSE LUIS GORROTXATEGI

Goienkaria
DEBAGOIENeko ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zehatzak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Harrera ona izan du ediziodun GOIENKARIAK



AURKEZPENA

GOIENKARIA ediziodunaren, hau da, eskualdeko aldizkari guztiak, ediziotan banatuta, batzen

dituen astekari berriaren, aurkezpen ekitaldia Arrasateko Hotel Mondragonen egin zen joan zen egubakoitzean, zenbakia labetik atera berri. Oso harrera ona

jaso zuen bildutakoaren artean. Argazkian dituzue, besteak beste, Joxe Aranzabal, *Arrasate Pres*eko lehen zuzendaria, eta Jabier Errasti, Eskoriatzako alkate oia.

POLITIKOAK

Ordezkaritza politikoa ere izan ziren: Antton Karrera, Ezker Batuko Gipuzkoako koordinatzailea —

argazkian, Marijo Deogracias kazetariarekin—; Iñaki Galdos, EAKo Gipuzkoako exekutibako presidentea; Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkateak...



ETXE DENETAN

GOIENKARIA eta herrietako edizioak Aramaio eta Debagoieneko ia etxe denetan banatuko dira astero doan. Oñatin ez da ediziorik izango, GOIENKARIA komuna bakarrik.

NONAHI

Etxeetako postontzietan ez ezik, taberna, jatetxe, eskola, udaletxe eta beste hainbat toki publikotan ere banatzen da. Edonon eskura eta irakur daiteke, beraz, astero-astero.

ERROTATIBAN

Diario de Noticias eta *Euskadunon Egunkaria* inprimitzen diren erro-tatiban, Iruñean, inpimitzen dira

GOIENKARIA eta herrietako hiru edizioak. Denera 21.000 ale inprimitzen dira bertan. Arrasateko ediziorako 7.000, Bergarakorako 5.900 eta Aretxabaletakorako 4.100.



ESTEPAN PLAZAOLA
Goienako
Lehendakaria

“Erronka aldizkariok duten gizar-te-eragina eta eskaintzen duten zerbitzua hobetzea izan behar da. Uste dut oraingo aldaketak horretarako aukera emango digula”.



XABIER ZUBIZARRETA
Arrasateko
alkatea

“Denborarekin, proiektuak euskaraz izatea gero eta normalago-tzat joko da eta eskaintzen zaigun zerbitzuaren maila eta kalitatea gehiago baloratuko da”.



LORE LEANIZBARRUTIA
Diputazioko Euskara
Zuzendaria

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Goienaren arteko elkarlana beharrezkoa da eta elkarlan hori eredu-garria izan daiteke, gainera, beste ibar batzuetarako ere”.



LOREA BILBAO
Jaurilaritzako HPSko
Euskara Sustatzeko Zuzendaria

“Goienarena bezalako proiektuekin bat egiten du Eusko Jaurilaritzak. Besteak beste, bat egiten duelako Euskararen Biziberri-tzeko Planarekin”.



IÑAZIO ARREGI
Goienako
Zuzendari Nagusia

“Goienako hedabideen helburua da gure bezeroen, hau da, gure komunitatea osatzen duten guztien, behar-astetzea eta kalitatezko zerbitzu informazioa eskaintzea”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen departamentuak etxeetan sortzen ditugun hondakinak gutxitzeko kanpaina abiatuko du datorren astean. "Eta orain zer?" ipini diote ize-na kanpainari. Hondakinen birziklapenaren gainean hausnarketa egitea du helburu. Leire Ereño, Ingurumen zuzendariak, azaldu dizkigu kanpainaren nondik norakoak.

ENEKO AZKARATE

Zer lortu nahi duzue kanpaina honekin?

Etxeetan sortzen ditugun hondakinek arazoak ematen dizkigute. Hau da, hondakin eta zaborrak etxeetatik hondakin ontzietara eramanean ostean, hauekin zer egiten dugun azaldu nahi diegu herritarrei. Gaur egun 300 mila milioi kilo hondakin sortzen da Gipuzkoako etxeetan. Hauetatik 50 mila milioi kilo lagatzen dira edukiontzi berezietan, ondoren birziklatzeko.

Etxeetan sortzen den hondakin kopurua jaitea da helburuetako bat?

Bai. Gure ustez, hondakinak gutxitzeko neurri egokia ahalik eta hondakin gutxien sortu edo produzitzea da. Baina zelan sortu ahalik eta hondakin gutxien? Erosketak egiten ditugunean kontuan izan beharko genuke hau. Esan nahi dut ahalik eta hondakin gutxien sortuko duten produktuak erosten ahalegindu beharko ginatkeela. Esaterako, harategira goazenean ontziraturako produktuak edo ontziratu gabekoak eros ditzakegu. Edo, burdinaki dendara goazenean puntapaitzak banaka edo paketea eros ditzakegu. Pentsatu behar dugu banaka erosten baditugu edo ontziratu gabeko produktuak erosten baditugu, hondakin gutxiago sortuko ditugula.

Honen gainean esan nahiko nuke Europako hainbat herrialdetan, Austriako hiriburuan, Vienan, esaterako, sortzen duten hondakinen arabera ordaintzen dutela herritarrek, hau da, hondakin gehiago sortzen duenak gehiago ordaintzen du.

Eta, hondakinen birziklapenaren gainean, zein egoeratan gaude Gipuzkoan?

Laurogeiko hamarkada hasieran, beiraren bilketarako lehenengo edukiontziak jarri ziren. 90eko hamarkada erdialdean, oster, papera eta kartoia jasotzeko ontziak jarri ziren eta, horrez gain, beira jasotzeko edukiontzi bat 500 biztanleko. 1998an plastikozko ontziak jasotzeko edukiontziak, hori eta laranja kolorekoak, jarri ziren, hauek ere, 500 biztanleko bat. Datuek erakusten dute arlo honetan oso aurreratuak gaudela, Espainian, esaterako, 2006. urterako aurre ikusi dute gure mailan egoitea. Beraz, esan genezake Gipuzkoan oso aurreratuta gaudela hondakinen biltze bereiztuari eta birziklapenari dagokionez. Erakundeek ez ezik, herritarrek ere ahalegin handia egin dute horrela izateko.

Beira, papera, kartoia, plastikozko eta beste material batzuetako ontziak... Beste zer edo zer birziklatzen da Gipuzkoan?

Bai, noski. Pilak batzeko, esaterako, edukiontzi bereziak badauzkagu. Eskualde batzuetan, bestalde, oihal hondakinak



LEIRE KORTABARRIA

Leire Ereño

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO NEKAZARITZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENDUKO ZUZENDARIA

"Hondakinak gutxitzeko modurik onena ahalik eta hondakin gutxien sortu eta produzitzea da"

HONDAKINEN BILTZE BEREIZTUA

"Gipuzkoan oso aurreratuta gaude hondakinen biltze bereiztuari eta birziklapenari dagokionez. Erakundeek ez ezik, herritarrek ere ahalegin handia egin dute horrela izateko"

ZABOR TASAK

"Europako herrialde aurreratuenetan, sortzen duten hondakinen arabera ordaintzen dute herritarrek, hau da, hondakin gehiago sortzen duenak gehiago ordaintzen du"

ere batu eta birziklatzen dira. Horrez gain, gero eta garbigune gehiago jartzen ari gara herrietatik gertu. Garbigune hauekin zer lortu nahi dugu: batetik, kontrolatu bareko isurketak ekiditea eta, bestetik, errekuperatu daitekeen hainbat material birziklatzea. Halako tokietan, pneumatikoak, kartoia, plastikoa, elektrogailuak, etxean egindako obretan jasotako hondakinak eta abar jasotzen dira, eta oso egokiak dira, esaterako, etxeko traste zaharrak gainetik kentzeko.

Hondakinen biltzea bereiztua egiteko lana eskatzen zaigu herritarrei, hau da, etxeko zabor ontzia horretarako prestatu beharra daukagu. Lanak errazteko zer edo zer pentsatu du Diputazioak?

Badakigu konplikatuagoa dela herritarrendako etxean ontzi bat baino gehiago edukitzea zaborra jasotzeko. Denborarekin, jendea ohitu da beira edo kartoia eta papera bereizten. Beste eratako ontziak bereizten ez gaude hain ohituak. Arazoaz ohar-

tuta, lehiaketa antolatua genuen eta hondakin horiek jasotzeko hainbat ontzi aurkeztu zizkiguten. Baina, sukalde guztiak ez dira berdinak eta, beraz, ontzi bakarrekin ez dugu arazoa konpontzen. Honen bestez, gaur egun etxeetan erabiltzen ditugun ontzietara egokitzen diren pintza bereziak banatuko ditugu hondakinak errazago bereiztu eta banatzeko. Aterabide praktikoa iruditzen zaigu. Hala ere, horrek ez du esan nahi sukaldean nahikoa toki duenak ontzi bereziak eskura ez ditzakeenik. Merkatuan badaude zenbait atal dituzten ontziak. Horiek ere oso egokiak dira hondakinak bereizteko. Bi zabor poltsatan bereizteak ez du esan nahi sarriago jaitsi beharko garela kalera zabor poltsak lagatzera.

Aurrerantzean, baina, etxeetako zaborra gehiago banatu edo bereiztea eskatuko zaie herritarrei?

Hondakinen kudeaketaz Udalak arduratzen dira, nahiz eta hauek mankomunitateei laga gai honen guztiaren kudeaketa. Honekin esan nahi dut Diputazioak ezin dezakeela ziurtatu mankomunitateren batek epe baten hondakinen biltzea bereiztea egiteko sistema berririk ezarriko ez duenik. Edozelan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia, mankomunitateekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Gipuzkoako hondakinen biltzea eta kudeaketarako Plan Integrala lantzen ari da. Plan horretan jasotzen denez, bosgarren edukiontzia ipini nahi dugu laster kalean. Edukiontzi horretan, etxeetan sortzen diren hondakin organikoak jasoko dira. Horrez gain, beste era bateko material batzuk, argi-hodi fluoreszenteak, pintura poteak eta abar, jasotzeko ere edukiontziak bultzatzeko planak ez ditugu alde batera lagako.

Egun, 300 mila milioi kilo hondakin sortzen dugu Gipuzkoan. Horietatik 50 mila milioi doaz edukiontzi berezietara. Gainerakoekin zer egiten da?

Azpeitia, Beasain, Donostia, Tolosa eta Zarautzeko zabortegietara eramaten dira. Hala ere, kontuan izan behar da zabortegi hauek ez direla betirako. Tolosako zabortegian, esaterako, urte amaieran hasiko dira ixte lanak. Donostiakoan, bestalde, Gipuzkoan sortzen diren hondakinen %60 jasotzen da, eta 2006. urterako ixtea aurre ikusi da.

Ikusten denez, zabortegiak betetzen doaz apurka-apurka. Horrek sortzen dituen arazoak nola konpondu daitezke?

Zabortegira eramanean aurretik hondakinak tratatzea edo bereiztea eskatzen digu Europatik datorren legedia zorrotzak. Lehen aipatu dudan eta une honetan lantzen dihardugun Plan Integralarekin erantzun nahi diegu arazoei. Plan honek 2016. urtera arte irauango du.

Planari buruzko zehaztasun gehiago emango ahalko zeniguke?

Hondakinak gutxitu, berrirabili eta birziklatzeko planak abiaraztea da helburua. Epe laburrera ez dugu aurre ikusi etxeetan sortzen diren hondakin organikoekin biltzea bereiztea egitea, baina bai, ordea, jate, merkatu, azoka plaza edo era honetako hondakin organiko sortzaile handiendako biltzea bereiztea egitea. Hauetan sortzen diren hondakinekin konpostea egingo da, ondoren lorezaintzan erabiltzeko. Ingurumenari eta ekonomiari begirako aterabideak proposatuko ditugu.

Eta herritarri onurarik ekarriko dizkio diru aldetik?

Gaur egun, zaborren tasekin ez diegu aurre egiten kostoei. Kutsatzen duenak ordaindu behar duela aintzat hartzen badugu eta printzipio hau muturreraino eramaten baldin badugu, zabor tasak igotzera behartuta egongo dira Udalak. Hala ere, zabor biltzetan Udalen kompetentzia da, eta hauek erabakiko dute noiz eta zenbat igo tasak.

Goi mailako gimnastak Bergaran

Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu da zapatuan Labegaraian

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu da Bergarako Labegaraian kiroldegian, 17:30ean hasita. Debagoieneko lau gimnasta izango dira han, eta Eibarko Ipurua taldea ordezkatu dute.

Idurre García arrasatearra, Ane Miren Fernández eta Leire Lasa bergararrak eta Aintzane Narváez antzuolarrak parte hartuko dute biharko taldekako txapelketan. Ane Miren eta Aintzane senior mailan arituko dira eta Leire eta Idurre, aldiz, gazte mailako ariketetan.

BERROGEI BAT GIMNASTA

Guztira, hamaika eta hamazazpi urte bitarteko berrogei bat gimnasta batuko dira biharko Labegaraian kiroldegian. Alebin, infantil, gazte eta senior mailako neskek arituko dira lehian.

Alebinek esku libreekin eta pilotarekin egin beharko dituzte ariketak, infantilek uztaiekin, gazte mailakoek mazoekin eta, azkenik, seniorrek pilotarekin eta sokarekin.



Aintzane Narváez, Idurre García eta Leire Lasa Ipurua taldean ari dira, Ane Miren Fernándezekin batera.

ARTXIBOA

Gipuzkoako txapelketa izan arren, bi talde bakarrik izango dira lehian: Donostiakoa eta Eibarko Ipurua, hain zuzen ere.

DEBAGOIENEAN TALDERIK EZ

Debagoieneko gimnastarik onenek ibarretik irten behar izan dira

gimnasia erritmikoa egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, gurean ez dago goi mailan lehiatzen den talderik. Hala ere, badira gaztetxoekin lanean dabilen zenbait elkarte.

Gauzak horrela, Idurre García, Ane Miren Fernández, Leire

Lasa eta Aintzane Narváez Ipurua taldean ari dira, Tania Nagornaya eta Susana Ballesteros entrenatzaileen aginduetara. Zaleek gimnasiarekin gozatzeko aukera izango dute zapatuan.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

ATLETISMOA/IBARRA


Behobia-Donostia herri lasterketa azaroaren 11n jokatuko da. Parte hartzeko interesa dutenek ondoko tokietan eman dezakete izena: Arrasaten, Lora-mendi Kirolak eta Sportland dendetan; Bergaran, Lazkano oinetako dendan; eta Oñatin, Txantxi kirol dendan. Izena emateak 2.500 pezeta balio du, baina proban erabili beharreko txipa itzultzen dutenei 500 pezeta bueltatuko dizkiete. Izena ematea azaroaren 3ra arte izango da zabalik.

PILOTA/ARETXABALETA

Lau t'erdia barruan esku pilota txapelketa jokatu da Aretxabaletan azaroaren 3tik abenduaren 22ra bitartean. Bi maila izango dira: batetik, federatu izandakoak, eta bestetik, gainerakoak. Izena ematea Aretxabaleta kiroldegian (943 71 26 28), azaroaren 3a baino lehen.

PILOTA/ARAMAIO

Profesional mailako pilota partiduak izango dira zapatuan, urriaren 27an, Aramaio kiroldegian, 22:00etan. Lau t'erdia barruan, Mínguez eta Zubillaga izango dira aurrez aurre, eta jarraian, Ansoategik eta Badiolak Legorburu eta Oregi Laren aurka jokatuko dute.



59 kolore eta barrualde konbinazio desberdin.

Zenbaki hutsa baino, espresibide bat.

Kanpoaldetik eta barrualdetik. Motorra aukeratzetik has zaitez. Diesela ala gasolina? Ez dizugu argituko betiko zalantza. Pentsa ezazu gasolinan (1.4/75 ZP, 1.6/110 ZP edo 2.0/138 ZP). Edo pentsa ezazu dieselean (HDI/70 ZP, HDI/90 ZP edo HDI/110 ZP). Eta gehi iezazozu ondoren datorrena. Egurra, aluminioa edo larrua, bost koloreko gama zabal batekin eta bost akabera motarekin konbinatzeko. Edozein estilo islatuta geratzen da, eta karrozeriarako 14 kolore aukeran edukitzeak hausnarketa onartzen du. Itxura, potentzia eta kontsumoa hamaika modutan konbinatuta. Sentitzen dugu hain zaila izatea.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/1.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik).

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA



ETORMOBIL

Otaola etorbidea, 22
943 20 09 66
943 20 09 96
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldipe auzoa, z/g
943 79 50 71
943 79 97 12
ARRASATE

OÑATI GARAJEA

Goribar auzoa, 9
943 78 13 50
OÑATI

307 
PEUGEOT

Podiuma

Iban Sastre | TXIRRINDULARI PROFESIONALA |

Iban Sastre Festina taldeko txirrindulari atxalbaltarrak (23 urte) aurtengo denboraldia Narancoko Igoeran amaitu zuen, urriaren 6an. Orain, talde berria topatzeko lanetan ari da, Festina desagertu egingo baita datorren denboraldian. Azken egunotan Ibanek Cofidis taldearekin fitxatuko duela zabaldu da hainbat komunikabidetan. Hala ere, Thailandiara oporretan joan baino lehen berarekin hitz egin dugu, eta inorekin ez duela sinatu baieztatu digu atxalbaltarrak.

Zein izan da Festina taldea desagertzeko arrazoia nagusia?

Txirrindularitza ez dago bere sasoirik onenean babesleei dagokienez. Banestok eta ONCE-Eroskik ere plantilak murriztuko dituzte datorren denboraldiari begira, eta Festinarekin batera, Estatu Batuetako talde bat eta Frantziako beste bat desagertuko dira hurrengo denboraldian. Badirudi krisia dagoela txirrindularitzan.

Festinarena ere nahiko arraroa izan da. Gu abuztuan enteratu ginen, prentsan, taldea desagertuko zela, eta Juan Fernández zuzendaria Coast taldera zihoala. Virenquek eta Zullek Festinari epaiketa irabazi zioten 1998ko doping auziagatik. Argi dago dopingaren inguruko polemikak, azken urteetan, min handia egin diola txirrindularitzari. Beharbada eragina izan du taldea desagertzeko orduan.

Datorren urtean Cofidis taldean izango zaitu-



Oporretatik bueltan eskaintzaren bat izatea espero du Ibanek.

“Festina taldea desagertzea nahiko arraroa izan da. Hala ere, oporretatik bueltan eskaintzaren bat izatea espero dut”

“Amaitu berri den denboraldian hobeto ibiliko nintzela uste nuen; asko entrenatu naiz baina emaitzak ez dira heldu”

gula zabaldu da azken egunotan.

Nik ere hori irakurri dut, baina oraindik ez dut ezer sinatu. Saunier-Duval taldean zuzendari izan nuen Josean Fernández Matxin (Mapeiko 2. zuzendaria Estatuan gaur egun) eta Juan Carlos González Salvador, nire ordezkaria, ari dira taldeekin negoziatzen, eta konfiantza osoa dut

eurengan. Gai horrek ez nau gehiegi kezkatzen. Oporretatik bueltan, eskaintzaren bat izatea espero dut. Estatuko talderen batena bada, askoz hobe. Nahiago dut Espainiako kalendarioa egitea, lasterketak ezagutzen ditudalako eta komunikabide aldetik ere oihartzun handiagoa dutelako hemengo probek. Era berean, Euskal

Herrian korritzea oso motibagarria da niretako.

Pozik aurten lortutakoarekin?

Ez, hobeto ibiltzea espero nuelako. Asko entrenatu naiz eta nire burua ere sekula baino gehiago zaindu dut, baina emaitzak ez dira heldu. Laurogei bat karrera egin ditut, tartean Euskadiko eta Kataluniako itzuliak. Nire zeregin nagusia taldeari laguntzea bazen ere, hainbat lasterketatan ezin izan dut lehenengo hamarren barruan sailkatu fisiko aldetik ezin izan dudalako daukadan guztia eman. Ondo egon arren, sasoi puntu bat falta izan zait aurrean egoteko. Eta entrenamendu faltagatik ez da izan. Aurten 22.000 kilometro egin ditut, eta emaitza hobeak lortzeko penaz geratu naiz.

Datorren urtean, zer?

Oraingo urtean bezala, topera ibiltzea espero dut, baina emaitzak lortuz. Mediki bat eta prestatzaile fisiko baten bila hasiko naiz datorren denboraldirako. Aurten, mediku eta prestatzaile barik ibili naiz, eta euren laguntza faltan bota dut beharbada.

Orain oporretara zoaz. Noiz hasiko zara denboraldia prestatzen?

Bai, Thailandiara goaz, 15 egunerako, eta txirrindularitza deskonektatzea ondo etorriko zait. Entrenamenduekin abenduaren lehen hasiko naiz eta Valentziara edo Bartzelonara joango naiz, eguraldi ona egiten duen toki batera. Hilabete inguru emango dut etxetik kanpo eta Gabonetarako etorriko naiz. Otsailean Mallorcako Itzulian egotea espero dut.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Gregorio Idigoras Txirrindularia



Garai hartan txirrindulariek zeukaten lizentzia.

1934. urtean hasi zen lehiatzen.


Hasieran, lizentzia barik egin zuen.

Espainiako Itzulian aritu zen gerra aurretik.

Txantxikuar honek berrogeita hamalau urte daramatza Arrasaten bizitzen, eta hogeita bi urte zituela hasi zen txapelketetan parte hartzen. Hasierako urteetan, lizentzia barik korritu zuen, eta lasterketa askotan parte hartzeaz gain, bat baino gehiago irabazi egin zituen. 1934an hasi zen lehiatzen. 1935ean, Donostiako Klasikoan parte hartu zuen. Eibar-Madril eta Madril-Eibar lasterketan ere izan zen. Lasterketa hark lau etapa zituen, eta Gregoriok kontatzen duenez, azkeneko lasterketa Burgosen hasi eta Eibarren amaitzen zen. Gregoriok BH taldean korritzen zuen, eta zuzendariak Luciano Montero taldekideari itxoiteko agindu zion. Lucianok gorpila zulatu egin zuen, eta atzean geratu zen. Orduan, Gregoriok zera esan zion zuzendariari: “Zelan itxarongo diot, Eibarren familia osoa egongo da eta nire zain”. Azkenean, itxaron egin behar izan zion, eta horri esker, Lucianok aurreko taldea harrapatu eta bigarren sartu zen helmugan. “Helmugaratzean Monterok lepotik heldu zidan, eta hura sekula ahaztuko ez zuela esanez, bostehun pezetakoa sartu zidan poltsikoan”. Espainiako Itzulian ere korritu zuen 1936an.

1936ko uztailaren 18an, Gregorio Markinarrantz zihoan, han, lasterketa baten parte hartzeko asmoz. Maltzagara iritsi zenean, miliziarren kontrol baten berriro ere Oñatirako bidea hartzeko esan zioten, gerra hasia zelako. Gregoriok, gerra zela-eta, lehiatzeari utzi egin behar izan zion, baina ez, ordea, bizikletan ibiltzeari. Gerrara joan zenean, komandante batek egin behar guztiak kendu zizkion gehiago entrenatzeko helburuarekin. /XABI URZELAI

“Burgos eta Eibar arteko epata batean, Montero taldekideak bostehun pezetakoa saru zidan poltsikoan bera laguntzeagatik”








Gregorio Idigoras • Oñati • 1912



Ritxar Fernandez garaile Donostian

Ritxar Fernandez atleta oñatiarrak Donostiako Oin-Klasikoaren V. ekitaldia irabazi zuen domekan. Donostiako proban 1.400 partaide izan ziren, eta ibilbidea 15 kilometrokoa zen. Fernandezek sasoi betean dagoela azaldu zuen, eta 47 minutu eta 45 segundoko denbora egin zuen. Lehen aldiz parte hartu zuen lasterketa horretan. Bere atzetik, Alberto Revuelta (49:02) eta Iñaki Bodegas, bi aldiz Espainiako duatloi txapeliduna izandakoa (49:56), sailkatu ziren. /E.M.



Ormazabal

Bainuak

Apaolaza, 2
Tel./Fax: 943 78 16 40
20560 OÑATI



Goienka 2a

Egubakoitza / 2001ko urriaren 26a

Kultura
eta
aisialdia



Urriaren 26tik
azaroaren 2ra

Grafologia

Ikastaroa Antzuolan

Zure nortasunaren zenbait alderdi ezkutuan gordetzea gustatzen zaien horietakoa baldin bazara... kontuz ibili non uzten dituzun edo zeini ematen dizkiozun eskuz idatzitako orriak! Zure letra eta sinadura mota ikusita, grafologia zientzian aditu batek berehala aterako ditu argitara zure sekretutxoak: apala edo harroa, sentibera edo hotza, taldean lan egiteko egokia ala bakartia... zaren jakin ahal izango du. Interesgarria, e? Bada, azaroaren 10etik aurrera, debagoiendarrak ere izango dugu zientzia horren oinarriak ikasteko aukera. Irune Ibarra adituak Antzuolan emango duen ikastarotan, ikertzaile edo psikologo bokazioa duzuenok, hemen duzue aukera!

/14

IZAERA/ NORTASUNAREN ZIRRIKITUAK IDAZKERAREN BIDEZ AGERIAN

Zelako idazkera, halako izaera

GRAFOLOGIA IKASTAROA EMANGO DUTE ANTZUOLAN: IDAZKERAREN BIDEZ PERTSONA ZELAKOA DEN ANTZEMATEN IRAKATSIKO DUTE

Batzuondako, gehienondako, idazkera tresna bat baino ez da. Beste batzuondako, edertasuna sortzeko modua. Eta grafologoendako, aldiz, idazkera ispilu bat da: idazlearen izaeraren edo aiurriaren ispilu egiazalea. Letren formak, lerroen noranzkoa, sinadura... gure nortasunaren sekretuen giltzak dira.

Gaur egun, grafologiaren baliagarritasuna ez du ia inork eztabaidatzen. Seguruena, gauzak oso bestelakoak izango ziren 1622an. Urte hartan argitaratu zuen Camilo Baldi italiarrak grafologiaren gaineko lehenengo liburua. Egoera hobera joana izango zen 250 urte geroago Crépieux-Jamin adituak *Grafologiaren ABCa* tratatua kaleratu zuenean. XX. mendean, idazkeraren bidez diagnosiak egin zitezkeela frogatu zen. Orduan bezala, grafologiak lilura handia pizten jarraitzen du.

Horrela da geurean ere: azken urteotan, Debagoienean grafologiako hainbat ikastaro egin dira. Horietatik abiatuta, interesa duen batek Crépieux aitzindari haren urratsak jarrai ditzake, eta hark ezarritako oinarriak bereganatu. Zazpi irizpide nagusi antolatuta zituen aitzindari frantziarrak: letraren forma, neurria, presioa, lotura, abiadura, makurdura eta lerroen noranzkoa; eta, horien azpian, beste azpiezaugarri asko. Horien fruitua zein den azaltzen digu Irune Ibarra grafologoak: "Pertsonaren ezaugarri gehienak jakin ditzakegu: logikoa edo fantasiazalea den; erraz kontzentratzen den edo distraitu egiten den; motibatua sentitzen den edo behartuta egiten dituen gauzak; barnerakoa edo irekia den..."

MEDIKUNTZA, ENPRESA, BIKOTEA...

Aurkikunde horiek psikologian eta medikuntzan erabil daitezke. Adibidez, epileptikoen eta psikopaten izaerak azter-



IRUNE IBARRA-UZTARO

Gure letra edo berba multzoek norantz jotzen duten ikusita, gure izaeraren hainbat ezaugarri ikus ditzakegu islatuta.

tzeko balio du grafologiak, eta adimen proba edo test moduan ere erabili izan zen. Gaur egun, balio terapeutikoa ere badu: "Zelakoa izan, hala idatzi bete egiten da, baina baita alderantzizkoa ere: psikologiak ikertzen du zelakoa, idazkera aldatuta, nortasunaren alderdi batzuk ere aldatu egin daitezkeen", dio adituak. "Enpresek asko

erabiltzen dute lanpostu baterako hautagaiak baloratzeko", diosku Ibarra. "Eta, bikoteen kasuan, elkarrekin ondo konponduko diren antzeman daiteke".

Hain esparru garrantzitsuetarako idazkera baloratzen bada, konturatuko gara ondorioak ezin daitezkeela modu arinean atera: "Grafologiak ez ditu irizpide arrun-

tak erabiltzen. Adibidez, ez da begiratzen letra polita edo zakarra den, harmonikoa den edo ez baizik. Idazkera bat zelakoa izan, zergati batzuk daude; eta horiek aurkitzea da gure eginkizuna", dio grafologo eta psikologoak.

LEIRE KORTABARRIA

IRUNE IBARRA / GRAFOLOGO ETA PSIKOLOGOIA

"Pertsonaren erretratu osoa lortzen da"

Iruna Ibarra markinarrak dinamizatuko du azaroan Antzuolan emango den grafologia ikastaroa.

Zelan sortu zitzaizun grafologiarekiko zaletasuna?

Hamazazpi urte nituela, grafologiaren gaineko liburu bat ikusi nuen, eta interesa piztu zitzaidan. Ordurako, oso argi neukan psikologia ikasketak egin gura nituela, eta oso teknika kurioa iruditzen zitzaidan grafologia

Euskal Herrian badu tradizioz jakintza horrek?

Zoritzarrez, ez; Alemanian,

Frantzia eta Italian, adibidez, grafologiak ibilbide luzeagoa egin du, eta psikologiarekin oso lotuta ikasten da. Hemen, idatzitako oso gauza gutxi dago. Ikerlari gutxi batzuk badaude, baina bakarka dabilta lanean.

Edozeinek ikas dezake grafologia?

Pazientzia eta borondatea izanez gero, bai. Jakina, ez da egun batetik bestera ikasten den kontua. Antzuolan emango dudana ikastaroan oinarriak landuko ditugu: zer den grafologia, zein aplikazio dituen eta testuak zelakoa aztertu pertsonaren nortasunera heltzeko.

**Pertsona baten izaera zenbateraino ezagut daiteke idazkeraren bidez?**

Ikuspegi askotatik mia daiteke: adimena, borondatea, portara, osasun fisiko eta psikikoa... Pertsonaren erretratu osoa lortzen da.

Bere izaera ezagutzeko gura ez duen batek faltsu egin dezake idazkera?

Ahaleginduz gero, bai, baina ezin dezake edozeinek egin. Praktika handia eta grafologia jakintza behar dira horretarako. Gainera, guztiz ere ezin daiteke faltsutu.

L. K.

ordemarik g
iragamaren
hitzen multzo
- l - b - k -

XABIER LETE

"Intuzioa ikusten dugu lotu bako letra hauetan. Bere barnearekin, inkontzientekin, erraz jarriko da harremanetan", uste du adituak.

ezfroak eta diamantea
pepotezko orratzetan,
eta nik ere
horretatik maite zait
horretatik maite zait
zure behin erbia...

JOAN MARI IRIGOIEN

Irune Ibarren ustez, Joan Mari Irigoien idazlearen zeinuk honakoa adierazten dute: "miatzeko gaitasuna eta zentzu kritikoa ditu".

Gesurak zifuratu
Bildu zure gesurak
Eta garbi haizea
Zure uingainera

IÑAKI PERURENA

Harri-jasotzaile ezagunaren idazkerak honakoa azaleratzen du: "Perurena besteenganantz doa bulkada handi batek bultzatuta, arin".

Wuuuu
H

EDUARDO TXILLIDA

"Bere eskulturak gogorarazten dizkit: indarra eta originaltasuna, ikusmen eta oroimen sakonarekin bat", dio Ibarra artistaren idazkeraren gainean.

Leinil kolajak

GABRIEL ZELAI

"Gizon, idazle, olerkari... honek zintzoki entzuten zekien bestearen hitza. Apala eta pertsona osoa zen", dio aditu markinarrak.

Iturria: Irune Ibarren *Grafologia eta Psiko grafologia artikulua* (Uztaro 4 eta 7, 1993).

ARGITALPENAK / 'JAKINGARRIAK' ALDIZKARIAREN AZKEN ZENBAKIA

NIREAUKERA

NEREA ALTZOLA / 'JAKINGARRIAK' ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

"Hezkuntza arloko euskarazko material asko kaleratzen dugu"

Joan den astean, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZIK) *Jakingarriak* aldizkariaren azkeneko zenbakia kaleratu zuen, 45.a, hain zuzen ere. Hezkuntzaren inguruko gai bat aintzat hartuta, hainbat adituren artikulua eta bibliografiak eskaintzen ditu aldizkariak. Euskal Herriko hezkuntza zentro gehienetan banatzen da, eta erreferente garrantzitsu bihurtu da. Nerea Altzola arrastearra da zuzendaria.



Nerea Altzola.

Zein da *Jakingarriak* aldizkariaren zenbaki berriaren ardatza?

Ahozko hizkuntzaren transmisioa aukeratu dugu gai moduan. Horren inguruko zazpi artikulua batu ditugu, honako egileek idatzita: Juan Kruz Igerabide, Uri Ruiz, Andoni Barreña, Julia Barnes eta Iñigo Ramírez de Okariz. Horieta batak HUHEZIKo irakasleak dira, eta besteak, beste unibertsitate batzuetakoak. Julia Barnes-ek ingelesez idatzi du, eta gainerakoek, euskaraz. Ingelesezko artikulua kaleratzen ditugun lehen aldia da.

Zehazki, zein gai aukeratu dituzte artikuluen egileek?


Denetarik dago; izan ere, ardatz-gaiaren inguruan oso ikuspuntu desberdinak lantzen ditugu. Artikulu bat, adibidez, mintzatzen ikastearen gainekoa da; zeinek ikuspuntu poetikoagoa hartu du; besteak, didaktikoagoa... Julia Barnes-en artikulua, adibidez, kortesiaren gainekoa zen. Artikulu horren ondorioa da ingelesez kortesia asko erabiltzen dela; gaztelaniaz, gutxiago; eta euskaraz, are gutxiago. Ez dakigu euskararen kortesia eskas hori oso hizkuntza zuzena delako

den edo kortesia baztertu egin dugulako. Arrazoiak edozein izanda ere, uste dut kortesia berreskuratu eta landu beharko genukeela.

Aldizkarian ingelesari geroago eta pisu handiagoa emateko asmoa duzue?

Eleaniztasuna lortzea, egiazko eleantiztasuna, erronka da guretzat; hau da, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskolak eman, artikulua idatzi... egin ahal izatea. Hori da gure asmoa. Edozelan ere, gure helburua da eduki gehienak euskaraz ematea, eta ez ingelesez. Nahiz eta ingelesak pisu handia izan, orokorrean, baita ikerketan eta artikulugintzan, gure lan gehienak euskaraz eskaintzen jarraituko dugu.

Badakizue zer harrera izan du en orain arte *Jakingarriak*-ek?



Oso zaila da hori jakitea, baina jasotzen ditugun eskaerengatik eta berriengatik, oihartzun handia duela konturatu gara. Hezkuntza gaien gainean euskarazko material asko eta asko kaleratzen dugu, eta hori kontsulta material moduan erabiltzen da; baita irakasleen euskalduntze prozesuetan, ikasketetan eta abarretan ere.

Irakur Gida ere plazaratu duzue...

Bai. Oraingoan, iaz kaleratu ziren umeendako eta gaztetxoendako euskarazko liburuen balorazioa egin dugu. Guztira, ehun liburu baino gehiago izan ziren, euskaraz idatzitakoak eta itzulitako lanak barne. Horieta, 18 lan oso gomendagarritzat jo ditugu.

LEIRE KORTABARRIA


Luis Mari Fernández

Oñatiko Aker tabernako zerbitzaria

Tabernan rock-and-roll eta heavy estiloko disko asko ipintzen ditugu; egia esatearren, ez dugu bestelako musikarik ipintzen. Estilo horietako talde asko gustatzen zaizkit; dena dela, bat bakarra nabarmendu beharko banu, Platero y Tú taldearen *Platero y tú a pelo* zuzeneko diskoa aukeratuko nuke. Nire ustez, oso-oso ondo dago disko hori. Izan ere, lan horretan, taldeak abesti indartsuenak batzen ditu, eta zuzeneko emanaldietan, gainera! Tabernan disko hori sarritan ipintzen dut, eta hori ez bada, AC/DC, Nirvana, Obus edo Barricada moduko taldeen diskoak.

'PLATERO Y TÚ A PELO'

Platero y tú



L.K.

KALERATUBERRIAK / Iban Arantzabal

LIBURUA / Kronika




INDIA HARRIGARRIA

Gotzon Garate
Elkarlanean
232 orrialde

Egileak liburuaren hasieran esaten duen moduan: "Iurralde miresgarririk, amesgarririk ikusi nahi baduzu, zoaz Indiara". India sagaratu, India misteriotsua, fakirren, Budaren, behien, kasten lurraldea, zeruaren ederra eta infernuaren latza elkartzen dituen herria; mendebaleko gure zibilizazio praktiko eta moderno honen guztiz bestelakoa. Gotzon Garate hizkuntzak ikastera joan zen Indiara, baina liluratuta bueltatu zen hango jende multzoekin, eta bereziki banakoekin, pertsoekin, hezur-haragizko gizon-emakumeen poz eta atsekabeekin.

Gotzon Garateren lan honen aurreritatzat jo dezakegu *New York, New York*.

LIBURUA / Eleberria



HARRI POTTER ETA SEKRETUEN GANBERA

J. K. Rowling
Elkarlanean
288 orrialde

Ingalaterran, Estatu Batuetan, Txinan eta Errusian ere fenomeno soziala izan bada, zergatik ez da izango, bada, Euskal Herrian? Harri Potterren beste abentura batekin gozatzeko aukera daukagu euskara hutsean. Lehenengo liburuaren berri eman genuen atal honetan, eta hau ere aurrekoa bezain dibertigarria, beldurgarria eta ustekabez bete da. Liburu honetan, Harryk bigarren urtea du Hogwartsen eta hau ere iazkoa bezain bizia, arriskuz bete eta zirrargarria da. Aurrerapen moduan, Harryri Ron Weasley laguna laguntzera joaten zaio auto hegalaria batean eta...

Orri asko, baina guztiak gozatzeko *Harri Potter eta sekretuen ganbera* liburuan.

DISKOA / Rocka



ESKUALAK UKABILAK

Berri Txarrak
Gor
13 kantu

Berri onak Berri Txarrak-en eskutik. Berritzailea edonondik ere nafarren lana, *Eskualak / Ukabilak* izenekoa. Riff sendoekin eta sentimenduz josita osatutako hamahiru kantu berri.

Ekoizle eta teknikari lanetan Kaki Arkarazo izan du laukoteak, eta, hortaz, Garatzen grabatua izan da lana, Andoainean. Hirugarren disko honetako kantuak amorrutik abestuak daude, gura ez duenak ere belarriak zabal ditzan. Plastikoen barruan abiada eta melodiak tartekatuta. Diseinu zaindua Gor diskoetxeok atera dutena.

Gorka Arbizu, Aitor Goikoetxea, Aitor Oreja eta Mikel Lópezek ateratako lanak gazteen amorrutik egarria aiseko dute. Musika gogorra gustuko duenarendako, disko borobila.

Urriak 26-Azaroak 2

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

BERGARA

- **Juanlu Escudero**ren "¡¡Ríe!! Soy un calavera" egubakoitzean, hilak 26, Pol-Pol tabernan, 22:30etan.
- **Txan Magoa** eguaztenean, urriak 31, Pol-Pol tabernan, 22:00etan.
- **La fábrica de teatro imaginario** taldearen "Zortzi Olivetti Poetiko" antzezlanaren egubakoitzean, azaroak 2, Novedades aretoan, 22:30etan.

ELORRIO

- **El rayo misterioso** talde argentinarren "Muz" antzezlanaren egubakoitzean, hilak 26, Arriola aretoan, 22:30etan.
- **Taun Taun Teatro** taldearen "Kont Arte" antzezlanaren egubakoitzean, azaroak 2, Arriola aretoan, 22:30etan.

OÑATI

- **Vaivén**en "Sinvergüenzas" antzezlanaren egubakoitzean, hilak 26, Santa Ana antzokian, 22:30etan.

MUSIKA

ARRASATE

- **Markos Untzeta & Buhame Fama** egubakoitzean, urriak 26, Olarteko Jai Zale tabernan, 23:00etan.
- **Merche Lois** eta **Sueños de Andalucía** taldearen emanaldia zapatuan, urriak 27, Al-Andalusen egoitzan, 19:00etan.

BERGARA

- **The Zodiac Killers** eta **Webelos** taldeak egubakoitzean, urriak 26, Jam aretoan, 22:00etan.
- **Orfeón Pamplonés** abesbatzaren emanaldia zapatuan, hilak 27, San Pedro parrokian, 20:00etan.
- **Gor gaua** zapatuan, hilak 27, Jam aretoan, 21:00etan: King Putreak, Leihotikan, Ken 7, Berri Txarrak, Txapel punk, Jousilouli eta Buitraker.
- **Bergarako Musika Bandaren** kontzertua, Osintxuko pilotalekuan, domekan, urriak 28, 12:30etan.
- **Saxon** eta **Red Wine** domekan, hilak 28, Jam aretoan, 20:00etan.
- **Richard Bartz**, **John Selway**, **Jesús González**, **Roa**, **Eulogio**, **Nuria Ghia** eta **Iván Serra** zapatuan, azaroak 3, Jam aretoan, 23:00etan.
- **La Polla** eta **Kaotiko** egubakoitzean, azaroak 9, Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

- **Ganbara** abesbatzaren emanaldia zapatuan, urriak 27, Agustinoen elizan, 20:15etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

- **Teresa Diaz**en pinturen erakusketa Harresi aretoan, urriaren 28ra arte.

BERGARA

- **Mugen gaitetik**. El Salvadorreko lurrikare buruzko argazki erakusketa azaroaren 4ra arte kultura etxean.
- **Mari Karmen Lopez**en olioak Nahikari tabernan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

- **Jokin Zaitegi** itzulpen laburren **XV. sariketa**. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefonoan.

EIBAR

- **Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa**. Gura duten argazkizale guztiek parte har dezakete. Gaia librea izango da eta gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru

koloretan aurkeztu ahal izango dira. Bildumarik onenak 80.000 pezetako saria jasoko du eta argazki solte onenendako ere sariak izango dira. Ondoko helbidera bidali beharko dira: Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Portalea. Eibarko Udala. Bista Eder 10. 20600 Eibar. Argibide gehiago 943 20 68 45 telefonoan. Epea: urriak 31

DONOSTIA

- **Komiki ez sexisten lehiaketa**, Donostiako Udaleko emakumearen bulegoak deituta. Sari bakarra emango dute, 150.000 pezetako. Lanak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Argibideak 943 48 14 13.

LASARTE-ORIA

- **Gazteak eta euskara ikertzeko beka**. Beka horren helburua da Lasarte-Oriako gazteek euskararen gainean dituzten jarreraren diagnosis egitea. Lana egiteko epea 12 hilabete-koa izango da, eta bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro). Proiektua eta gainerako agiriak aurkezteko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. 943 37 60 55.

BILBO

- **Gabriel Aresti XIX**. Ipuin Lehiaketa. Ipuinak gehienez DIN A-4 motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita. 550.000 pezeta gordineko sari bana eta 225.000 pezeta gordineko bina azkezt egongo dira. Lanak helbide honetan aurkeztuko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila. Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa. Ernesto Erkoreka plaza z/g. 48007 Bilbo. Epea urriaren 31n bukatuko da.

ONDARROA

- **Augustin Zubikarai nobela laburrentzako saria**. Lanek (DIN A4 formatoan makinaz idatzita) gutxienez 50 orrialde eta gehienez 100 orrialdeko luzera izan beharko dute. Sari bakarra emango dute, 4.000 eurokoa. Lanak emateko epea abenduaren 1era arte izango da zabalik. Argibideak Ondarroako Udaleko euskara zerbitzuan, 94 683 36 68 telefono zenbakian.

ZUMAI

- **Zumaiako euskarari buruzko ikerketa-lana egiteko beka deialdia**. Zumaiako euskara aztertuko da.

eta ahozko tradizioa eta kultura ondareari buruzko ikerlanak eskatzen dira. Bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezetakoa izango da. Epea: urriaren 31. Argibideak: Zumaiako Udaletxean.

IKASTAROAK

ANTZUOLA

- **Grafologia ikastaroa** Udaletxean azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean eta 15ean, 10:00etatik 12:00etara, Iruñe Ibarren eskutik. Izena emateko epea urriaren 31n amaitzen da. Argibideak: 943 76 62 46.
- **Umeei ipuinak nola kontatu**. Azaroaren 17an, 24an eta abenduaren 15ean, 10:00etatik 13:30era. Erakuslea: Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko partaidea. Izena ematea (3.000 pezeta) urriaren 31era arte zabalik. Argibideak: 943 76 62 46.

ARETXABALETA

- **Garapen pertsonala taldea**. Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.
- **Eskulan ikastaroa**. Argibideak eta izena ematea Kultura Etxean, 943 71 10 27 zenbakian.
- **Yoga hastapen ikastaroa**. Eguaztenetan eta egubakoitzean 10:00etan, edo martitzenetan eta eguenetan, 20:30etan. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian jaso daitezke.

ARRASATE

- **Gazte ikastaroak**: euskal dantzak, bio-dantza eta argazkigintza. Izena ematea Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.
- **Kantu harmoniko ikastaroa** azaroaren 5etik aurrera. Argibideak 943 79 80 25 edo 943 77 00 65 zenbakian.
- **Perretxiko ikastaroa** azaroaren 7an eta 8an. Hastapen maila. Aranzadi Zientzia Elkarteko José M^o Zapirainek emango du. Izenemateak azaroaren 6ra arte, 943 77 12 28 telefonoan.
- **Antzerki tailerra**: azaroaren 10ean hasiko da. Argibideak: AEDn, 943 77 12 28 telefonoan.
- **Autoestimatu tailerra** urriaren 30etik aurrera. 10 saio izango dira. Argibide gehiagorako: 943 79 09 00.
- **Psikogeriatria ikastaroa**: zahartzaroko dementsia eta Alzheimer gaisotasuna. Azaroaren 12, 13, 14, 15 eta 16, 15:15etik 18:15era. Izena ematea ICTE delakoan, 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 zenbakietan.

BERGARA

- **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** ekaina bitartean Zabalotegin. Lau ordu astean. Argibideak 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefono zenbakietan.
- **Fandango eta arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako eskolak. 943 76 15 40.



► MUSIKA

SAXON TALDEA JAM ARETOAN

Saxon-maniak tinko dirau urteotan zehar, eta Debagoieneko eta inguruko jarraitzaileek talde horren zuzeneko emanaldiarekin gozatzeko aukera dute asteburu honetan. Biff Byford, Paul Quinn, Doug Scarrat, Nibbs Carter eta Fritz Random *Killing Ground* izeneko lan berria aurkezttera datoz; era berean, *Rock is Your Life* edo *Coming Home* bezalako arrakastak eskainiko dituzte. Horrez gain, King Crimson taldearen *Court of the Crimson King* abesti ezagunaren bertsioa egin dute. Oro har, hard rockaren eta heavy metalaren arteko uztarteketa lortu du Saxon-ek. Byford-en ahots pertsonalak eta Quinn eta Scarrat gitarrajoleen bakarkako saioek izaera berezia ematen diote Saxoni.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Domekan, urriaren 28an. **Ordua:** 20:00. **Prezioa:** 3.000 pezeta txarteldegian.



HOLIDAY ZIRKOA

Arrasateko Arruena zelaian izango dira, honako egun eta orduetan: egubakoitzean, 18:15ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:15ean; eta domekan, 12:00etan, 17:00etan eta 19:15ean. Goizez, zoologikoa bisitatzeko aukera ematen dute.

► **Pintura ikastaroa** Beart elkarteak antolatuta. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. 656 72 44 49.
► **Heziketarako psikomotrizitate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEdek, 2002ko urtariletik aurrera. Argibideak gura izanez gero, deitu 943 76 90 33 telefonora.

ESKORIATZA

► **Amuska taldeak**, Udalarren laguntzaz, antolatutako ikastaroak: bolillo, larrua eta pintura oihal gainean, eskulanak eta pintura. 30 orduko ikastaroak. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 46 88 zenbakian.

DEBAGOIENA

► **Begirale ikastaroa** Txatxilipurdi, Axtroki, Loramendi eta Laixan elkarteek antolatuta. 18 urtetik gorakoei dago zuzendua. 943 79 54 46.

GASTEIZ

► **Psikomotrizitate praktikako V. jardunaldiak** azaroaren 9tik 11ra Gasteizko Europa jauregian. Matrikulak 15.000 pezeta balio du. Izena ematea azaroaren 3ra arte zabalik. Argibideak 943 76 90 33 telefono zenbakian.

DEIAK

BERGARA

► **Erretratu zaharrak**. Jardun elkarteak, Debagoieneko euskara elkartearekin batera, bailarako herrietako argazki zaharrak biltzen hasi da, datorren urteko egutegia prestatzeko asmoz. Hortaz, Jardunek dei egiten die herriko argazki zaharrak dituztenei Kartzela Zaharreko bulegotik pasatzeko.
► **Obserbazio irteerak** antolatu ditu Pol-Pol Mendi Taldeak. Azaroaren 10ean izango da lehenengoa, Santoñara. Argibideak: 943 76 48 51.

EIBAR

► **Hizkuntzak ikastea, uste baino errazagoa** hitzaldia martitzenean, urriak 30, Portalean, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Arizmendi Ikastolak** Zarimutzen jaialdia antolatu du zapatuan, urriak 27, 16:00etan. 2tik 10 urtera bitarteko umei zuzendutako ekintza da.

MUSEOAK

ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola**. Hidalgo, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoak**. Asteburuetan eta jaieguneetan lau bisitaldi. Argibideak: 943 71 47 46.

Zinema

ARRASATE

ALAI ZINEMA

Inteligencia Artificial

Eguena: 19:00, 22:00.
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 22:00.

Como perros y gatos

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

NOVEDADES

La pareja del año

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Pokemon 3

Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

SANTA ANA

La pareja del año

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Deseando amar

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Moulin Rouge

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

Y tu mamá también

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

The Mexican

Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

Lagundu, arraina naiz!

Domeka: 16:30.

ELORRIO

ARRIOLA

Lucía y el sexo

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Kementsua

Domeka, umeendako zinema: 17:00.

GASTEIZ

GURIDI

Pecado original

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.

I love you baby

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.

The score (un golpe maestro)

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

La maldición del escorpión de jade

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

A todo gas

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La pareja del año

Egubakoitzetik martitzenera: 17:30, 20:00.

Fausto 5.0

Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 22:30.

El pacto de los lobos

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domeka eta astelehena: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:45.

MIKELDI ZINEMAK

Jay y Bob el silencioso contraatacan

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00, 22:45.

El Juramento

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:15, 22:45.

Fantasmas de Marte

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00, 22:45.

The Score (un golpe maestro)

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:15, 22:45.

A todo gas

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:15, 22:45.

Pecado original

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15,

20:00, 22:30.

Amelie

Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:15, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 22:30.

Y tu mamá también

Egubakoitza, zapatua eta domeka: 20:00, 01:15.
Astelehena eta martitzena: 20:00.

La mandolina del capitán Corelli

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00, 22:30.

Moulin Rouge

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena ikuslearen eguna.

FLORIDA-GURIDI

La pianista

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Fantasmas de Marte

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Amelie

Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

Pinocho y Geppetto

Egubakoitzetik martitzenera: 12:30, 17:30.

Salir del armario

Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 20:00, 22:30.

Los otros

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Y tu mamá también

Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik martitzenera: 20:00, 22:30.

La habitación del hijo

Egubakoitzetik martitzenera: 17:30.

STER ZINEMAK

The Score (un golpe maestro)

Egunero: 12:20 (goizekoa), 16:25, 19:00, 21:30, 00:00 (gauekoa).

I love you baby

Egunero: 17:15, 20:00, 22:45, 18:55, 21:20, 23:30 (gauekoa).

Pecado Original

Egunero: 12:25 (goizekoa), 16:05, 18:25, 20:40, 22:55, 01:10 (gauekoa).

Jay y Bob el silencioso contraatacan

Egunero: 12:40 (goizekoa), 16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:40 (gauekoa).

Moulin Rouge

Egunero: 12:00 (goizekoa), 16:20, 18:45, 21:15, 23:40 (gauekoa).

Los otros

Egunero: 12:15 (goizekoa), 16:00, 18:10, 20:30, 22:50, 01:05 (gauekoa).

Juana La Loca

Egunero: 18:05, 20:20, 22:40, 01:00 (gauekoa).

La pareja del año

Egunero: 12:25 (goizekoa), 16:15, 18:30, 20:35, 22:45, 00:55 (gauekoa).

Hora punta 2

Zapatua eta domeka: 12:45 (goizekoa).

Estoy hecho un animal

Egunero: 16:45, 18:35, 20:15, 22:05, 23:35 (gauekoa).

Pinocho y Geppetto

Zapatua eta domeka: 12:35 (goizekoa), 16:30, 18:20.

Goizeko emanaldiak zapatuan eta domekan. Gauekoak egubakoitzean eta zapatuan.

KRITIKA

LA MALDICIÓN DEL ESCORPIÓN DE JADE

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Woody Allen

AKTOREAK: Woody Allen, Helen Hunt, Dan Aykroyd

Iritsi da, urtean behin gertatzen den bezala, Woody Allenen azkenengo filmaren estreinaldia, *La maldición del escorpión de Jade*, hain zuzen ere. Eta *Allenzale* amorratua naizenez, (bera da azkenengo 30 urteetan komediak izan duen maisu nagusia) zinemara hurbildu naiz 1940. urtean New Yorken kokaturik

dagoen komedia beltza ikustera. Filma sendoa eta dibertigarria da, baina txikia; ez dago Allenen lan onenen artean.

Allenen zinea ikusten duenak berehala gogoratuko du nola, sarritan, bere filmetan, zinema mundua aipatzen duen, edo nola bere pertsonaiak zine batean agertzen diren. Honekin, argi eta garbi ikusten da zuzendariak Hollywoodeko film klasikoengana sentitzen duen mirespena; eta zinema horren omenalditzat har dezakegu bere azken lana. *La maldición del ...-en*, zuzendariak zinema beltzetik detektibearen pertsonaia hartzen du. Ikertzaila kasu korapilatsu baten barnean sartuta dago, eta horren ondorioz, polizierekin arazoak izateaz gain, hainbat motatako pertsonaiekin harremanetan jartzeko aukera izango du (pertsonaia horien artean, zinema beltzean behar-beharrezkoa den



banpiresa dago). Eta komedia generotik, bikote baten arteko tirabirak erabiltzen ditu: egun osoan elkarrekin haserre egon arren, azkenean maitemindurik bukatuko duen bikotea.

Film entrenigarria eta sendoa dugu, elkarriketa eta erantzun argiekin, trinkoa eta egitura onekoa da, eta

gaur egun egiten diren komediei alde handia ateratzen diena; baina, bere film handienekin konparatuz gero (*Annie Hall*, *Manhattan*, *Delitu eta Faltak* eta abarrek), apur bat inpersonala agertzen zait, pilotu automatikoarekin eginda egongo balitz bezala.

Allen zuzendari bikaina dugu, oso ondo errodutzen dakiena, eta oso gidoilari bikaina denez, elkarriketa barregarriak egiten dituena, baina bere azken laneko pertsonaiak lauegiak dira: Allenen film onenak komedia gazi-gozaok dira. Bere pertsonaien obsesioak eta adura-mudak bikain islatzen ditu, bere arazoak erakutsiaz, baina beti umorez. Komedia hutsean sartzen denenan, bere zinea pixka bat txikitzen egiten da.

ANTONIO ZABALA

TXARRA: ● ESKASA: ●● BALEKOA: ●●● ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Zubiaurren etxebizitza salgai. Prezioa adosteko. 943 76 33 78.

Arrasate. Aldaigainen etxebizitza salgai. Terraza ederra. Ikuspegi zoragarriak. 943 79 62 50.

Bergara. Koldo Eleizalden etxe handia saltzen da. 943 76 34 48.

Arrasate. Altamiran etxe handia salgai. Duplexa egiteko aukera. 652 70 97 79. Deitu 19:00etatik aurrera.

Arrasate. Pablo Urangan 100 m²ko etxebizitza salgai. Lau logela, egongela, sukaldaria, trastelekua, bi komun, bi balkoi, ganbara eta garajea (aukeran). Gas naturala, berogailu zentralizatua, igogailua eta berrikuntza ugari. Berehala sartzeko moduan. 943 77 21 45 (gauze).

Arrasate. Musakolako Elkano kaleko 30-3.D etxebizitza salgai. Erdi jantzita. 19 milioi pezeta. 943 79 51 97.

Bergara. Martokuan etxebizitza salgai. Sukaldea berrituta dago. Gas naturala. 943 76 08 08 edo 629 46 47 22.

Oñati. Santamarina plazan etxebizitza salgai. 943 78 09 79.

Bergara. Toki Ederren apartamentua eta garajea salgai. Eskriturak datorren urteko ekainean. 943 27 01 61.

Arrasate. Uribarri etorbidean etxebizitza salgai. 943 79 39 11.

Arrasate. Erdialdean 95 m²ko etxebizitza salgai. Hiru gela, bi bainu, igogailua, sotoa. Oso ondo dago. 699 87 68 52. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

Arrasate. Gorostiza auzoan etxebizitza salgai. 80 m². Gangara, sotoa eta garajea. Eguzkitsua eta jantzita. 20:00etatik 22:00etara. 656 73 24 64.

Arrasate. Elkano kalean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldaria, komuna eta egongela. 943 77 17 88.

Arrasate. Musakolan 110m²ko etxebizitza salgai. Eguzkitsua, igogailua, berogailu indibiduala, lau logela, egongela, sukaldaria, bi komun, bi balkoi. Jantzita. 943 79 27 88 edo 626 36 55 56.

Bergara. Aranerrekian 89 m²ko etxebizitza salgai. 943 76 07 30 15

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Levante hondartzaren etorbidean apartamentua ematen da errentan. 943 79 92 73.

Arrasate. Iksleendako etxebizitza ematen da errentan. 943 77 09 32.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. 943 79 18 47. Deitu 20:30etik aurrera.

Donostia. Intxaurrenondan gela bakarreko apartamentua ematen da errentan. 658 72 11 87.

Aretxabaleta. Erdigunean apartamentu garajearekin ematen da errentan. 655 74 17 45.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke. Jantzi gabea. 620 17 07 37.

Bergara. Mutil gazte batek etxebizitza jantzia hartuko luke errentan. 619 47 63 54.

Bergara. Gutxienez bi logela dituen etxebizitza hartuko nuke errentan. 670 97 66 85.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logelak alokatzen dira sukaldaria erabiltzeko aukerarekin. 943 79 05 26.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Larreako etxeetan garaje itxia salgai. 653 72 54 24. Deitu 21:00etatik 23:00etara.

Arrasate. Elkano kalean garaje itxia salgai. 626 36 55 56.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Boni Laskurain kalean garajea errentan emateko moduan (bigarren solairuan). 943 76 57 04.

Bergara. Ibargarai kalean (Torreku) garajea ematen da errentan. 639 98 50 08.

Bergara. Ibargarai kalean garajea ematen da errentan. 943 76 14 35. Deitu 21:00etatik 23:00etara.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

| | | | |
|---|---|---|---|
| <p>1. ETXEBIZITZAK</p> <p>101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK</p> | <p>3. LOKALAK</p> <p>301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK</p> | <p>6. MOTORRA</p> <p>601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. KONPONDU 604. BESTELAKOAK</p> | <p>803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK</p> |
| <p>2. GARAJEAK</p> <p>201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK</p> | <p>4. LANA</p> <p>401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK</p> | <p>7. ANIMALIAK</p> <p>701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK</p> | <p>9. HARREMANAK</p> <p>901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK</p> |
| <p>5. IRAKASKUNTZA</p> <p>501. ESKAINTZAK 502. ESKAERAK 503. BESTELAKOAK</p> | <p>8. DENETARIK</p> <p>801. SALDU 802. EROSI</p> | <p>10. RELAX</p> | |

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizuniki.

Arrasate. Bi lokal ematen dira errentan. 943 79 18 70 edo 696 38 16 49.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lagun talde batek elkarrekin egoteko lekua behar du (lokala, garajea, ganbara,...) 943 79 98 73.

Arrasate. Lokal txiki bat hartuko nuke errentan. 699 00 30 28. Igor.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Aretxabaleta, Eskoriatza,... Emakumea gertu edozein lan egiteko. 943 79 94 85.

Bergara. Gertu nago edozein lan egiteko. 943 76 36 68. Deitu 15:00etatik 18:00etara.

Arrasate. Zaharrak euren etxeetan zaintzeko titulua daukan emakumea lanerako prest. Garbiketak ere egingo nituzke enpresetan edo etxeetan. 943 79 94 85.

Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 943 76 06 92.

Arratsaldeko 17:00etatik aurrera lan egiteko neska

BERGARA
JATETXE BATEK ZERBITZARIA BEHAR DU
943 76 15 59
943 76 22 83

ARRASATE
TXITXINPE TABERNA ASTEBUKAERETAN LAN EGITEKO PERTSONA BAT BEHAR DA
617 60 84 45

gertu. 620 51 34 25.
Oñati. Banaketak egiteko (janak, lantegietan, piezak,...) eskaintzen dut neur burua. 943 78 28 15 edo 678 22 97 77.
Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza emakumea gertu arratsalde umeak zaintzeko edo orduka etxeko lanak egiteko. 943 71 53 74.
Emakumea gertu lantegi edo lantokiretan lan egiteko. 655 73 54 85.
Bergara. Etxeko lanak egin edo pertsona zaharrak zain-

BERGARA
Pertsona bat behar da domeka eta jaiegunetan **KONDE PANADEROKUAN** (Tokiederrren) lan egiteko. 943 76 02 57

ARRASATE
NESKA BAT BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO
943 79 74 09

duko nituzke. Goizez edo arratsalde. Esperientziaduna. 699 01 59 42.
Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 79 97 11, Kontxita.
Bergara. Neska euskalduna gertu pertsona zaharrak zaintzeko arratsaldetan. Autoa daukat. 943 76 43 16. Gauze deitu.
Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 79 87 40.
Bergara. Neska gazte eus-

ARRASATE
NESKA EUSKALDUNA BEHAR DA **ARRASATEKO DENDA BATEAN ARRATSALDETAN LAN EGITEKO.** BIDALI DATUAK **ARRASATEKO** 259 POSTAKUTXARA

kalduna gertu umeak zaintzeko edo laguntza eskola emateko (matematika, ingeleza,...). 943 76 37 91 edo 652 71 74 49.

402. ESKAERAK
Antzuola. Pertsona behar da etxeko lanak egiteko. 699 87 67 02.

Arrasate. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 23 02.

Oñati. Emakumea behar da bi urteko umea zaintzeko arratsaldetan. 626 43 99 72 edo 943 78 05 96.

Bergara. Neska bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. 943 76 31 11.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

INGELES ESKOLAK

Ingeles eskolak ematen dira. **Maila: Lehen HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA.**
600 30 07 76

Bergara. DBHko 4. mailako Matematika eta Fisikako eskolak emateko irakaslea behar dut. 943 76 38 28 (gauzez deitu).

Arrasate. Lizentziaduna gertu Lehen Hezkuntzako eskolak emateko. Euskaraz eta gaztelaniaz. 943 79 83 46.

Irakasle izandako batek Natur Zientziak, Kimika, Fisika eta Matematikako eskolak emango lituzke. LOGSE nahiz institutuko maila. 943 79 62 78.

Bergara. Ingeles eskolak ematen dira. Maila guztiak. 943 76 31 72. Ainhoa.

Arrasate. Laguntza eskola ematen da. Arreta, ulermena. 649 22 51 07.

502. ESKAERAK

Aretxabaleta. Enpresaritzako bigarren mailako ikasle batek kontabilitateko klaseak hartuko lituzke. 943 79 82 00.

Frantsesezko eskolak hartuko nituzke zapatu goizetan. 606 42 73 36. Gurutze.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Opel Astra salgai. 1,7 TD. 85 CV. SS-AW (1996). Beltza, bost ate. Egoera onean. 676 97 54 41.

Range Rover 3.9 L V8SE autoa salgai. 1992koa. 104.000 Km. 606 42 73 36. Gurutze.

Ford Fiesta 1.4 autoa salgai. NA-AF. 943 76 23 27. Martin.

Naus markako karabana salgai. 4,85 m. Kanpaldi librea egiteko oso aproposa. 943 76 53 28.

604. BESTELAKOAK

R-11 markako autoa moto baten truke emango nuke. 943 79 15 96. Asier.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Cort markako baxu aktiboa salgai. Berri-berria eta prezio ona. 943 76 38 25 edo 652 71 39 32.

Senar-emazteendako **logela salgai.** Ohea: 135 cm. Armairua: 2,30 m. Mesanotxea eta komoda..Merkea. 943 76 42 90.

Ordenagailua salgai. Pentium II. 266 Mhz, Bus 66 Mhz, Ram 64 Mb, HD 3,2 Gb, CD Samsung 32X, Monitorea 15", teklatura, arratoia, bozgorailuak eta software pakte zabal. Ia berria. 100.000 pta. 943 71 42 39.

Bergara. Upera auzoan zortzi urteko pinuak dituen lursaila salgai. Errepidearen ondoan dago. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

PlayStation salgai. Hiru mando eta 25 joko. 943 77 14 57.

Kayaka salgai. Ondo dago. Osagarri guztiak. 943 79 78 36.

804. HARTU

Arrasate. Sofa bat hartuko nuke. Iker. 626 71 98 16.

806. GALDU

Arrasate. Maritxu Kajoi egunean erlojua galdu nuen Udal Biltegiaren inguruan (Zigorrola). Sarituko da. 626 43 42 50.

Arrasate. Urriaren 17an, moto istripu baten Seiko markako erlojua galdu nuen Santa Marina inguruan. 943 76 18 05.

807. BILATU

Bergara. Emakumezkoen jaka bat topatu nuen Santa Marina inguruan. 943 76 18 05.

808. BESTELAKOAK

Bergara. Zapatuan, ohartu barik, umeen jaka bakero bat hartu genuen Agorrosinen. 943 76 00 66.

9/ HARREMANAK

CLUB IYOLA
Elgetara bidea **BERGARA**
943 76 11 29

GANESHA
NEW STYLE
PORTZELAKO
PIERCING-Δ
TATTOO & BODY PIERCING
> KLINIKA LAGUNTZAILEA
> LABORATEGI KLINIKOA
> ESPERIENTZADUNA
> HIGIENEA 100%
Olarre, 43 bis • ARRASATE • 943 71 18 24

BIKAIN Akademia
Bikain Akademia
HOBETUZ 2001
Bikainek lanean dauden langilei, autonomo zein aldi batekoak, %100ean diruz lagundutako ikastaroak eskeintzen ditu:
MEKANOGRAFIA
INFORMATIKA
POWER POINT
OFIMATIKA
INTERNET
AUTO CAD
Infomazio gehiagorako:
ARRASATE
Garibai 6-B, bis
943 77 11 06
605 71 67 97
ARETXABAETA
Aralar kalea 6, beheha
943 71 27 80
PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA
Birziklatu!

AIPAGARRI

Isidor Ugarte

MONDRAGOE

Datorren astean Principe de Asturias karate txapelketa jokatu du Isidor Ugartek eskal selekzioarekin. Estatu mailako txapelketa izango da, eta Ovidon jokatu da. Aipatzekoa da, gainera, Isidor 5 urterekin hasi zela karatean, eta kategoria guztietan izan dela Euskadiko txapelduna.



Tomasa Zabaleta

BERGARA

Gipuzkoako Nagusien Kontseiluko presidente ordean dugu Tomasa Zabaleta. Oraingo astean albiste izan dugu hainbat komunikabidetan; izan ere, gaur, egubakoitza, hasiko da Donostian Pertsona Nagusien Kontseiluen topaketa. Tomasak 71 urte dauzka eta Bergarako San Xosepe elkarteko presidentea ere bada.



Eider Arzelus

BERGARA

Eider Arzelus izango da, datorren astetik aurrera, Jardun euskara elkarteko kultur dinamizatzaile berria. Gogor lan egin beharko duela azaldu digu Eiderrek, baina ilusio eta ikasteko gogo handiarekin hasiko dela. Haur hezkuntzan diplomatua da Eider, eta Aranzadi Ikastolan ibili zen lanean iazko ikasturtean.

JAIOTAKOAK

- Ander Aimar Lazpita Casquete.** Arrasaten, urriaren 10ean.
- Mikel Fernández Ledesma.** Aretxabaletan, urriaren 11n.
- Haritz Diaz de Gereñu Dos Santos.** Bergaran, urriaren 11n.
- Oier Terrazas Reglero.** Bergaran, urriaren 13an.
- Ariane Ortiz de Jocano Gómez.** Bergaran, urriaren 15ean.
- Mikel Etxezarreta Learreta.** Arrasaten, urriaren 15ean.
- Danel Elortza Alvarez.** Arrasaten, urriaren 15ean
- Naiha Argiz Vita.** Eskoriatzan, urriaren 17an.
- Leire Lezeta Badiola.** Eskoriatzan, urriaren 17an.
- Yanira Urtzelai Gómez.** Eskoriatzan, urriaren 18an.
- Eba Aranburu Markaide.** Aramaion, urriaren 18an.
- Eneritz González Arruti.** Bergaran, urriaren 18an.
- Ander Ramos Fernández.** Arrasaten, urriaren 21ean.
- Txomin Arriaran Lagunilla.** Arrasaten, urriaren 21ean.

HILDAKOAK


- Josefa Fernández Esteban.** Aretxabaletan, urriaren 19an. 90 urte.
- Sabina Urmeneta García.** Oñatin, urriaren 20an. 81 urte.
- Mateo Gabilondo Alberdi.** Bergaran, urriaren 21ean. 74 urte.
- Maria Zapirain Garmendia.** Arrasaten, urriaren 21ean. 82 urte.
- Jesus García García.** Arrasaten, urriaren 21ean. 95 urte.
- M. Concepción Pérez Lombard.** Arrasaten, urriaren 22an. 83 urte.
- Jose Manuel Jiménez Jiménez.** Antzuolan, urriaren 22an. 69 urte.
- Valentin Eraña Balanzategi.** Bergaran, urriaren 22an. 81 urte.
- Irene Matías Jiménez.** Bergaran, urriaren 24an. 74 urte.

EZKONDUAK

- José Antonio Espinosa Arrocha** eta **Maria Isabel Oliva Gamito.** Arrasaten, urriaren 13an.
- Salvador García Piña** eta **Mari Carmen Gil Mena.** Arrasaten, urriaren 20an.
- Andoni Loiti Otxoa** eta **Nagore Iraola Aranburu.** Arrasaten, urriaren 20an.
- Ramon Riveiro Costa** eta **Maria Isabel Jausoro Belategi.** Gatzagan, urriaren 20an.
- Juan Carlos Trujillano Iduya** eta **Sonia Gochi Sanchoyerto.** Gatzagan, urriaren 20an.
- Raul Polo Santano** eta **Amaia Macías Blanco.** Bergaran, urriaren 20an.
- Josu Unamuno Vega** eta **Mireia López Moñux.** Bergaran, urriaren 20an.



Jennifer Caballero Garcia eta **Rosa** ama, bergararrak biak. Jennifer urriaren 4an jaio zen, eta 3,220 kilo pisatu zuen. **Luis Mari** da aita, bergararra hura ere.



Kepa Roldan Mendizabal atxabatarrak **Pedro** aitarekin, mondragoetarra. Kepa urriaren 17an jaio zen, eta 3,600 kilo pisatu zuen. **Goizane** da ama, atxabatarrak.



Danel Elortza Alvarez eta **Inma** ama, mondragoetarrak biak. Urriaren 15ean jaio zen Danel, eta 2,420 kilo pisatu zuen. **Jesus** da aita, mondragoetarra hura ere.




Leire Lezeta Badiola eta **Antxon** aita, eskoriatzarrak biak. Leire urriaren 17an jaio zen, eta 2,800 kilo pisatu zuen. **Asun** da ama, azpeitiarra.



Nahia Argiz Vita eta **Angela** ama, eskoriatzarrak biak. Nahia urriaren 17an jaio zen, eta 3,650 kilo pisatu zuen. Aita **Carlos** da, mondragoetarra.



Malen Olañeta Vicente eta **Amaia** ama, bergararrak biak. Malen urriaren 21ean jaio zen, eta 3,260 kilo pisatu zuen. **Iñaki** da aita, bergararra hura ere.



Roman Zeziaga eta **Amaia Oregi** bikote bergararra datorren zapatuan, azaroaren 3an, ezkonduko dira Olatzen, Azpeitian. Euren senitar-teko eta lagunekin ospatuko dute. Gero, Amerika aldera, **Mexikora**, hain zuzen ere, joango dira ezkon bidaian. Ondo pasa dezazuela, bada, bikote, eta zorionak familiakoan eta lagun guztien partetik!

ESKER ONA

Estebe Llodio

Hileta-elizkizunetara eta omenaldira joandako guztiei eskerrik beroenak amaren eta bere lagunuen izenean



Arrasate, 2001eko urria

URTEURRENA

Vicente Arana Gorostiza

1999ko urriaren 29an hil zen Bigarren urteurreneko meza domekan, urriak 28, 12:30ean, **Leintz Gatzagako** Dorletako Amaren santutegian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Javier Urrutia Ugalde

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriak 27, 19:00ean, **Arrasateko** parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Elias Murgizu Txintxurreta

Arimendi baserriko Misiolari Domikinoa Ekuadorren hil zen 2001eko irailaren 20an 72 urte zituela

Hileta-elizkizuna domekan, urriak 28, 10:00etan **Antzuolako Uzarraga** Parrokian



HITZGEZIDUNAK

| | | | | |
|-------------------|---------------------|------------------|-------------------|----------------|
| | | Giltza | Karrika | Kanpo, at |
| | | Zoritxar | Deitura | |
| Irakasleen multzo | Goien | Arrantza-gunea | 560 | 500 |
| | | | | 20 |
| Txerriak | 551 | Garen hauek | Nerau | Harroputza |
| | | | | |
| Sexu eme | | Infin., uxatu | | |
| Eguzki | | PI, eraikin mota | | |
| | | | | |
| Bokala | Bibliako pertsonaia | | | Hidrogenoa |
| Gogaitua | Bikotea | | | Uranioa |
| | | | | |
| Emakume izena | | | | Röntgen |
| Pinu mota | | | | Zezen zikiratu |
| | | Bokala | Iridioa | |
| | | Kontsonantea | Jainko egiptoarra | |
| Izena | | | | |
| Begirada | | | | |
| | | Portua | | |

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ David Peñalver



PISTOLA BEREZIXA

Bi tipo txiza egitten, bat beltza eta bestia zurixa, eta esan dau zuri-xak:

- Hi, nundik atara dok hori pistolioi?

- Hau, txiza egin ostian, komuneko marmolari emoixok eta ikusiko dok.

Juntatu die hillabetera eta esan dau baltzak.

- Hi, txistua ze?

- Ba! Haunditu ez dok egin, baiña koloria hartzen hasi dok!

ASTRONAUTEN ARTIAN

Juntatzen die astronauta batzuk kohetiak nora bialdu bihar dituen erabakitzeke:

Inglesek:

- Guk Martera bialduko juau!

Gaiñerakuak:

- Bieeen!

Frantsesek:

- Guk Jupiterrera.

Gaiñerakuak:

- Bieeen!

Euskaldunak:

- Guk eguzkira.

Gaiñerakuak:

- Bieeen!

Euskaldunak:

- Ze uste dozeu? Gu egunez

goiazela ala?

HAURDUN

Juan da hamazortzi urteko neska amangana eta...

- Ama, haurdun laga nabe!

- Baiña alaba, nun euki eban

burua!

- Ba, bolantian eta radiokasetan artian edo...

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zenbat fraide Arantzazun, gehien izan zirenean?

Arantzazuren bosgarren mendeurrena da aurten. Bertako fraide kopurua dezente murriztu da azken urteetan, baina oso aspaldi ez dela izan omen zuen Arantzazuk inoizko fraide kopururik handiena: 1964an. Asmatuko ote zenuke urte hartan zenbat fraide (fraidegaiak kontatu gabe) zeuden Arantzazun?

- 173
- 82
- 53

Erantzun zuzena: 173.

SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | O | A | K | • | V | O | S |
| O | D | R | A | R | E | R | • |
| R | • | E | • | R | E | R | L |
| R | • | A | R | A | L | • | • |
| V | A | T | R | E | P | S | A |
| H | • | E | O | • | A | • | • |
| • | X | D | • | I | K | E | • |
| V | X | U | • | L | V | • | • |
| D | • | K | A | E | R | D | • |
| N | E | R | G | O | R | E | • |
| V | A | L | • | K | A | L | • |
| • | K | • | G | • | • | • | • |

DENBORA-PASA /21

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Ingurukoek zurekin duten jokaera hotzaren ondorioz eurenganako zeure jarrera aldatuko duzu. Izan maitagarriagoa ondokoekin.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Ahalegindu gauzak modu bortitzean ez adierazten, bestela ondokoak minduko dituzu eta etsaik ugari-rituko zaizkizu. Beharrez, zure asmoak oso errealak ez direnez, atzeratuko zaizkizu, baina egokituz gero, guztia ondo joango da.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure ahaleginaren emaitzak batzen zabilaz arren, ez zaude erabat gustura, gehiago espero baitzen- nuen. Lisakarretan dabilaz arren bitartekari-rena egingo duzu, horrelakoetan ohi baino trebe-ago ibiliko zara eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Ametsetan ibiltzeak, beharrez aukera paregabeak galaraziko dizkizu. Adi beraz jendeak diotsunari. Kontuz jatekoarekin, ahul zabilazenez azalean arazoak izan ditzakezu eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Guztien arreta zeureganatzeko gogoak ohi baino lelokeria gehiago eginazko dizute. Pentsatu ezer egin aurretik, jokaera horrek fama txarra baino ez dizu ekarriko eta.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Komunikatzeak eta jendearekin tratuan aritzeko trebetasunak, orain arte ausardia ezagatik bazter- tutako lanak egin lagunduko dizute. Ondo diru aldetik, lehen egindako beharretako saria jasoko baituzu. Zaindu osasuna bai, baina itsutu barik.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Beharrez aurrerapenak egiteko aste egokia. Bolada ona izan arren ez lasaitu larregi, aukera onak gal ditzakezu eta.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Zure bizimoduarekin gustura ez egotearen ondorioz hainbat aldaketa egingo dituzu, etxean esate- rako. Beharra dela eta hainbat bidaia egin beharko dituzu, eta badaezpada, kotxea aztertzea eraman beharko zenuke.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Egun osoa lagunekin parrandan zabilaz, eta etxe-koak ikusi ere ez dituzu egiten. Kontuz, arazoak izan ditzakezu eta. Larregizko jan-edanak urdaileko mina eragin diezazuke; zaindu pisua.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Ohikotasunetik alde egiteko gogoagatik beharrik egiteko utziko dituzu, eta nagusiak haserretuko zaizkizu. Ez ibili batetik bestera zoro baten modura, hanka okertu dezakezu eta.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Kontuz diru larregi xahutzearekin, hilaren bukaera latza izan daiteke eta. Beharrez itzel, zure ideia zoragarriak nagusien gustukoak izango baitira. Aprobetxatu lan baldintza hobek eskatzeko.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Maitasunean ezin hobeto: bikotekidea badaukazu bidaia egingo duzu berarekin, eta ez badaukazu, pertsona berezia ezagutuko duzu bidaia batean. Kontuz zer sinatzen duzun, bestela adarra joko dizute eta.



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

TELEBEGI

Gerran

Dos cuarteles de la Ertzaintza fueron atacados ayer con cócteles molotov en Guipúzcoa: uno en Mondragón y otro en Arrasate. En ninguno de los dos casos hubo detenciones... (Antena 3. Informatiboa. Irailak 9). Gertuko informazioa horrela manipulatu duenak zer ez ote du urrunekoaz egingo?

Garai txarrak hauek, kamarada! Gerran gaude. Gerra semantikoa. Aberatsen bortizkeria militarra GERRA da. Pobreena, berriz, TERRORISMO basatia. Harrigarria da gero kontzeptuen erabilera pozoitsu hau!

Gerran gaude, bai. Etika sinpleenaren aurkako gerran. Militarrek epaileen toga jantzi dute. Epaitegia, portabioia da orain. Fiskala, tankedun armatua. Rambo du izena abokatuak, eta Justizia, Mendekua da orain. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Gerran gaude, bai. Iritzi globalizatuaren gerran. Geu onak, haiek txarrak. Geure kultura gizalegezkoa. Zorua haiena. Ixo! Ezbairik ez! Gurekin ez bazaude, gure kontra zaude, kontu gero!

Gerran gaude, bai. Kruzada erlijiosoaren gerran. Bin Laden-ek "Alá handia da" esaten du hitzaldiaren amaieran, eta zera iruditzen zaigu: musulman hauek guztiak iluminatu eta fanatiko koadrila bat baino ez direla. Bush-ek "Jainko ahalguztidunak bedeinka ditzala Amerika eta amerikarrak" esaten duenean, berriz, aitaren egiten dugu guk. Amen! Portzierto, kamarada, non ezkutatu da Aita Santua?

Gerran gaude, bai. Gerra mediatikoan. CNN triste dago. EEBBetako agintariak, ostera, haserre. Al Jazeera Telebista suntsitu nahi dute. Pentagonoko zentsura bulegotik bidalitako aginduak ez omen dituzte behar bezala betetzen... Disidentziari sua, kamarada!

Komunikabideek Yankien uniforme militarra jantzi dute. Intelektualak Bush-en ahotik mintzo dira. Kritika penalizatu egin da, eta alde bateko zein besteko agintari faltsuak hildako gizagaixoen lepotik ari dira mundua maneiatzen... Zein gizarte ulergaitza, kamarada!



ANDONI URZELAI

LORE MARTÍNEZ/ 'SAREAN' SAIOKO AURKEZLEA

"Euskarak bere lekua behar du interneten"

Datorren eguaztenean, saio berri bat aurkeztuko duzu Goiena Telebistan: Sarean. Zelatan telebistan?

Konekta Zaitz kanpainarekin gizar-mentalizatu gura da; ordenagailuak erosi behar direla, konexioak egin behar direla... Baina zertarako behar ditugu hainbeste konexio eta hainbeste ordenagailu, ez badakigu zelan erabili internet? Horrez gain, euskarak bere lekua izan beharko du interneten. Telebista helburu horiek lortzeko tresna ezin hobea da, eta horretan saiatuko gara.

Internet euskaraz erabiltzea garrantzitsua da?

Interneten web orriak egiten ditut, eta, normalean, enpresariak ez dute euskaraz erabiltzen euren web orrietan. Euskararen erabilera oso murrizta da interneten, eta horretan esfortzu handia egin beharko dugu, euskarak interneten bere lekua izan dezan, gutxienez, Euskal Herrian.

Kamera aurrean jartzeak asko beldurtzen zaitu?

Beldurtu ez, baina askotan zer esan ez dakidala gelditzen naiz, eta ni egoe-

ra horretan barrezka hasten naiz. Baina hasiberria naiz eta poliki-poliki ikasiko dut.

Nori zuzendutako saioa da Sarean?

Debagoiendar guztiei. Batez ere, internet egunero erabiltzen dutenentako. Helburua da jendea animatzea internet erabiltzen; euskaraz bada, hobeto.

Proposatuko zeniguke webguztiren bat?

Oso kuriosoa iruditu zitzaidan madeinboli.com. Boligrafoa erabili dute web orria egiteko.



Asteko programazioa / Urria 26-31

| EGUBAKOITZA 26 | ZAPATUA 27 | DOMEKA 28 | ASTELEHENA 29 | MARTITZENA 30 | EGUAZTENA 31 | EGUENA 1 |
|--|--|--|--|--|---|---|
| 14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Sarrera doan 15:15 Berriak 15:30 Soinuz blai 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Soinuz blai | 14:00 Ateburuko tartea Gatza eta berakatza Xelegeberri Iparrorratza Peru ezagutzeko aukera izango dugu oraingoan. Sarrera doan Atebururako Debagoiensean kontuan hartu beharreko hitzorduak. Soinuz blai Astebete | 14:00 Ateburuko tartea Gatza eta berakatza Xelegeberri Iparrorratza Peru ezagutzeko aukera izango dugu oraingoan. Sarrera doan Atebururako Debagoiensean kontuan hartu beharreko hitzorduak. Soinuz blai Astebete | 14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Astebete 15:15 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Ateburuan gure kirol taldeek jokatu-tako partiduen errepaso zabala. 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 21:30 Berriak | 14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Goienasport 15:15 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Xelegeberri 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Iparrorratza Mongoliaraino bidaiatuko dugu oraingo saio honetan. | 14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Xelegeberri 15:15 Berriak 15:30 Iparrorratza 20:00 Berriak 20:30 Sarean Interneten gainean saio berria estreinatuko dugu. 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak | Ez dago programaziorik. Hala ere, zapatuan, hilaren 3an, berriz ere izango gaituzue zuekin eta asteazkenean zehar izandako saioen errepikapena ikus ahal izango duzue. |

BARRUKOKONTUAK

Sukalde berria

Datorren urterako *Gatza eta berakatza* sukaldaritzaren programarako saio berriak prestatzen hasi gara. Itxura berritzaile eta modernoko sukalde muntatzen ari gara. Datorren urteko saiorako sukalde Carfra etxeak ipiniko du. Oraingoan, ibarreko zenbait sukaldariz gain, Gasteizko Ostalaritza Eskolako ikasle eta irakasleak izango dira jakiak prestatzen. Hortaz, laster iritsiko da Debagoienera sukaldariek prestatutako jakien usain goxoa.

Lehiaketak

Astero, makina bat sari banatzen ditugu Goiena Telebistan. Lehenengo aukera martitzenean daukazu, *Xelegeberri* saioan. Hilean behin, Bergarako Torrekua erretegiaren bi pertsonarendako afaria irabaz dezakezue. Parte hartzeko nahikoa izango da telefonoz deitzea. Bigarren aukera *Sarean* saioak emango dizue, izan ere, Milar Elkoro etxeak babestuta, zure ordenagailuarendako proposak izan daitezkeen sariak izango dituzu. Anima zaitzete!

KAMERA AURREAN



"Jaiegunetan zabaldu ahal izatea merkatari txikiendako konpetentzia desleiala da"

Amaia Zubia / Dendaria
"BERRIAK" (2001-10-24)



"Ez dakit berritzailea naizen, baina, behintzat, ahalegintzen naiz beste gauza batzuk ateratzen"

Edu Muruamendiaraz / Dantzaria eta koreografoa
"SARRERA DOAN" (2001-10-25)



Aldape jatetxea

Eskaintza Iturriotz, 41 / ARRASATE
943 79 70 41

- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak

- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

Igandetan itxita



Araotz merenderua

Eskaintza Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerak

Berezitasunak

- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

Eguketik domekara zabalik



Baster-Alde

Eskaintza Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Ibarra jatetxea

Eskaintza Araba etorbidea, 29 / ARETXABALETA
943 79 69 86

- Menua
- Karta larunbatetan
- Plater konbinatuak
- Gazte taldeentzat prezio bereziak

Berezitasunak

- Kokotea
- Lupina
- Txuletoia
- Almejak

Enkargurik ezean domekak itxita.



Mitarte Garai

NEKAZAL TURISMOA

Eskaintza (Urkuluko urtegitik gertu)
Areantza auzoa / ARETXABALETA
943 79 17 51

- Menua
- Karta
- Enkarguak

Berezitasunak

- Bildotsa
- Etxeko gazta, txorizoa eta ogia

Astelehenetan itxita



Ostatu jatetxea

Eskaintza Gudarien bidea, 4 / ELGETA
943 76 80 23

- Menua eta Karta
- Jaunartzeak eta bataioak
- Kintadak

Berezitasunak

- Ehiza (Oilagorra, Eperra, Galeperra)
- Entremes beroak
- "Txispa" entsalada
- Buztana




Taberna-Berri jatetxea

Eskaintza Durana, 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Zotz jatetxea

Eskaintza Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Atzeskua

MAIDER OSA

Joana Madinabeitia/ Arropa diseinatzailea

Zer dela eta arropa diseinatzaile?
Txikitatik gustatu izan zait. Familian, amaren aldetik, batzuek moda asuntuetan dihardute lanean, eta horrek ere eragina izango zuen. Gero, ikasketak egin nituen Bilbon.
Soinean eramaten dituzun arropak zuk zeuk egindakoak dira?

Beste arropa batzuk ere eramaten ditut. Dena dela, janzterakoan apur bat espeziala naiz. Ez diet horrenbeste erreparatzen markei. Nola josita dagoen, diseinua, orijinala den... Horiei begiratzen diet.

Modari dagokionez, oso jantzita egongo zara.

Bai, dezente. Duela gutxi, Cibelesen izan nintzen, denboraldi berrian jantzietan zein tendentzia izango ziren ikusteko. Lanbide honetan asko mugitu beharra daukagu. Tendentziak begiratu eta gero, arropari nire ukitu pertsonala ematen saiatzen naiz.

Debagoiengan zer moduz janzten da jendea?

Leku guztietan moduan, denetik dago. Hala ere, lehen, jendea gehiago lotsa-

tzen zen. Berritasunari beldur zion jendeak.

Hiru diseinatzailearen izenak emango dizkizut, euren gainean iritzia eman dezazun.

Versace: Oso femeninoa da. Emakumearen formak indartu egiten ditu. Askok gustatzen zait. Ehun arinak erabiltzen ditu. Bere arreba ez zait bera adina gustatzen.

Calvin Klein: Ez da Versace bezain elegantea. Arropa informalagoa egiten du, komodoagoa eta komertzialagoa.

Amaia Artzuaga: Oso berritzailea da. Geometria bilatzen du, eta puntuzko arropa diseinatzean ere berritasunak sartzen saiatzen da. Hura ere femeninoa da, baina bortitzagoa.

Arropak diseinatzea kontu bat da; baina saltzeko, zer moduz?

Momentuz, nahiko ondo nabil. Oraindik ez dut denda askotan saltzen, baina.

Bestalde, ezkontzetara-

ko-eta diseinatu izan ditut arropak, enkarguz betiere.

Inoiz Cibelesekin egin duzu amets?

Bai, baina horretarako urte asko pasatu behar dira. Cibelesek fama dakar, eta horrek, gehiago saltzeko aukera. Cibelesera joateko gonbita egin didate, diseinatzaile gazteen sailean. Baina horrek izugarritzko gastua dakar.

Zein kolore ez zenituzke sekula nahastuko?

Arrosaren eta gorriaren nahasketa ez zait askorik gustatzen. Ezta gorria eta laranja ere. Hala ere, batzuek ondo konbinatzen dituzte horiek.

Zein hartuko zenuke zure arropendako musa moduan?

Ez dakit. Donostiako Akuarion arropa aurkeztu nuenean, Maialen Fernandez de Arroiabe arrasatearra asko gustatu zitzaidan. Kanpotarren artean, berriz, Nieves Álvarez, nahiz eta adinez ere aurrera doan.



“Tendentziak begiratu eta gero, saiatzen naiz arropari nire ukitu pertsonala ematen”

“Arteak badu zerikusirik arropak diseinatzearekin”

“Inoiz egin dut amets Cibelesekin, baina horretarako urteak pasatu behar dira”

► Oñatiarra / 25 urte / Arropa diseinatzailea

PIPERRAUTSA

Antrax

Urduri zeuden estatubatuarrak, eta guztiz asaldatu ditu postaz iristen den zomorro honek. Ez dago gauza segururik, baina AEBetan hasi dira bigarren erasoak aipatzen.

Lehen erasoak zuzenean ikusi nuen, eta telebistatik aldendu ezinean egon nintzen hiru bat ordur. Zine itxura zuen, baina bagenekien benetan ari zela gertatzen. Eta horrek sekulako morboa du. Orain 25 urte, Nagisha Oshima-ren *L'empire des sens* filmak ikusmin itzela sortu zuen, sexu pasarteetan egiazki larrutan ari zirela zabaldu zenean.

Irailaren 11ko eraso maltzurra izan zen, teknologiaz apala, ideiaz aparta. Misilen aurkako ezkutuz babestu guran zebilen herria guztiz erasogarri utzi zuen, babes barik.

Bigarren eraso-bide hau are maltzurragoa izan daiteke. Gutun-azal bat edonork jar lezake postan, edonon. Gero, hiritar zintzok berak biderkatuko du eragina, eta arriskua edonora eraman.

Eraso batak zein besteak oso zaila egiten dute hiritarren babesa. Ez da, ez, misilen aurkako teknologiatik etorriko. Inon egotekotan, erasoen erroetan aurkitu beharko da. Zerk eragiten du AEBen aurkako gorrotoa arabiarren artean? Nola gutxi daiteke gorroto bortitz hori?


Ez, behintzat, Afganistan bonbardatuz. Bushek eta Blairrek Estatu Palestinarrari buruz adierazi duten jarrera berria bide hobea da. Honi eutsiko baliote!

MIKEL IRIZAR

Lau gela eskaintzen dizkizuegu urte osoan eta gure sagardotegian txotxean sagardoa dastatzeko aukera.

ESKAINITZA
Asteburuan bi lagunendako gau bat
+
afaria + gosaria + bazkaria
15.000* pta.

* Behe-denboraldian



Eibarrerako bidea z/g • 20690 ELGETA • 943 78 90 84